



Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2001eko urtarrilaren 26a • II. urtea • 7. zenbakia • DOAN BANATZEKO

XABIER ZUBIZARRETA

"Lizarra-Garazik oinarriak jarri zituen. Emandako urratsek ez dauka atzera bueltarik" /9

EZTABAIDA

Ahal den guztia egiten da etxebizitzaren arazoa konpontzeko? /7

Goienka2a

Herrietako zine-klubetako eskaintza zabala

ASTEKO GAIA: *Heldu zaigu sagardotegira joateko sasoa /2-3*

JON LAZKANO, ASIER ARANGUREN ETA ALBERTO IÑURRATEGI

Munduan zehar dokumentalak grabatzen

- *Joan den urteko azaro eta abendu bitartean Maliko Fatimaren Eskua eskalatzen izan ziren*
- *Dokumental sortaren azken atala Alpeetan, Chamonixen, grabatuko dute otsailean*

Alberto Iñurrategi eta Asier Aranguren atxabaltarrak eta Jon Lazkano bergararra *Goienkaria*-ren erredakzioan izan ditugu aste honetan. Udaberri aldean Euskal Telebistak eskainiko duen dokumental sorta bat lantzen dabilta eta proiektu horren nondik norakoak azaldu dizkigute.

Nepalen, Pakistanen eta Patagonian izan ondoren, joan den urteko azaro eta abendu bitartean Afrikan izan ziren, Malin hain zuzen, Bamako hiriburutik 1.000

bat kilometrora dagoen Fatimaren Eskua izeneko dorreak eskalatzen. Euren hitzetan, esperientzia guztiz aberasgarria izan da eta liluraturik bueltatu dira Afrikako lurraldeetatik. Otsailean, berriz, Alpeetan grabatuko dute dokumental sortaren azken atala.

Andoni Egaña bertsolariak egin ditu dokumental horietarako gidoiak. Asier Arangurenek errealizadore eta kazetari lanak egin ditu. Hasiera baten, zazpi saio eskainiko dituzte. /11



Jon Lazkano, Asier Aranguren eta Alberto Iñurrategi martitzenean izan genituen *Goienkariaren* erredakzioan.

EDU MENDIBIL

ESKORIATZA

Justo Seguraren ziguilak ikusgai

Japoniako ziguiluen bilduma jasozten duen erakusketa ireki zen joan den eguaztenean Eskoriatzako Museo Eskolan. Justo Segura misiolari eskoriatzarrak azken hogeita hamar urtean Japonian bildutako ziguilak izango dira ikusgai bi asteotan Museo Eskolan. Justo Segura bera egon zen erakusketaren aurkezpenean. Edorta Zubizarreta Eskoriatzako alkateak plaka oroigarria eman zion. /14



Justo Segurari plaka oroigarria eman zion Eskoriatzako alkateak.

IÑIGO BIAIN

EDIFICIO
LABEKOA

Ondo jateko beste modu bat

Santa Lucia auzoa, z/g
20709 EZKIO-ITXASO (Gipuzkoa)
☎ 943 72 25 52 ☎ 943 72 43 81
✉ baminar@teleline.es

Txotx egin!

Iritsi da sagardotegira joateko sasoria

MARIJO DEOGRACIAS

Iaz bezala, ailegatu da sagardo berria dastatzeko garaia eta ez dakit zerekin hartuko dugun -agian okelarekin ez, baina zerbaitekin, seguru baietz. Aurten, sagardoa berde-horixka kolorekoa da, zapore sakona du eta usain bete; erraz edatekoa da”.

Berba horiekin eman zion hasiera Juango Peciñak, Iturrieta sagardotegikoak, txotx denboraldiari. Eta Iturrietako sagardoa probatzen lehenengoa, emakume bat. Oraingoan, ez zen izan Joanes Somarriba, baina gure bailaran oso ezaguna den beste emakume batek hartu zuen lekua: Maite Aristegik, EHNE sindikatuko idazkariak, hain zuzen ere: “Aramaioko sagardo berria, edan eta gozatu guztiok... Ederra benetan”.

Maiatza arte iraungo du aurten ere sagardotegien denboraldiak. San Sebastian egunaren inguruan hasten da txotx garaia, baina sagardoaren prozesua lehenago hasten da, irailaren amaieran edo urriaren hasiera aldera, hain zuzen ere. Orduan jasotzen dira sagarrak eta prentsatzeko prozesuari ekiten zaio. Irakiten jartzen da, zikin guztia bota dezan, eta gero, hilabete batean-edo, itxita egoten da upelean.

Iturrieta sagardotegian Juanjo eta Benito Peciña anaiak aritzen dira eta aurten 9.000 litro sagardo egin dituzte. 4.000 litroko bina upel eta 1.000 litroko beste bat dituzte sagardotegian. Juanjok azaldutakoren arabera,


“iaz oso ondo joan zen denboraldia eta sagardo asko edan zen; aurten, berriz, ez dakigu zer gertatuko den behien auzia dela eta; hala ere, aurtengo sagardoa ona atera da”. Iturrietan bailarako sagarrekin egin dute sagardoa. Ez

dute Dolare izendapenik, Aramaiokoak direlako; Dolare izendapena Gipuzkoako sagardo egileek dute; hala ere, Juanjok dioten bezala, “azken baten, Dolare izendapenaren elkarteak gu barruan ez onartu arren, Gipuz-

koako sagarrekin egindako sagardoa daukagu, eta, finean, gauza bera da”.


Hortaz, sagardotegien bihotzera, Astigarragara, joan barik, Aramaiora jo eta han Arraga auzorako bidea hartu, bakailao

tortilla, bakailao takoak piper gorriekin edo berdeekin, txuleta, eta bukatzeko, irasagarra, gazta eta etxeko intxaurrak jan nahi izanez gero. Bestela, Elosun ere eskaintzen ditu sagardoa eta ohiko menua Ixaun jatetxeak.



Aramaioko Iturrieta sagardotegia, joan den egunean.

MARIJO DEOGRACIAS



Uberako Olañeta anaiak sagardoa pisatzen.

IBAN ARANTZABAL

Sagardoa egiteko pausoak

1. SAGARRAK BATU

Hemen inguruan, Ubera aldean batzen ditugu sagar guztiak. Kanpotik ere ekarri izan ditugu, baina aurten hemengoak dira guztiak, asko egon da-eta jasotzeko. 4.000-5.000 kilo ingururekin egiten dugu sagardoa.

2. UMATZEN LAGA

Hamabost bat egunean umatzen lagatzen da. Ganbaran egoten da gozatzeko, hau da, sagarrak behar duen ukitu hori hartzen. Itxaron beharra dago eta eguna aukeratu, noiz atera handik eta noiz bota makinara.

3. MAKINARA

Eguraldi onarekin, makinara. Eguraldi onari begira egon eta eguraldia freskoa dagoenean makinara botatzeko moduan dago sagarra. Hau guztia iluntze aldean egiten da, beti ere freskotasuna egokiagoa izaten da eta.

4. BARRIKETAN IPINI


Hiru hilabete inguru behar izaten ditu barriketan. Horrela, graduak neurtzen ditugu. Sei gradu inguru izaten ditu hasieran, eta gero jaitsi beharra dago, gradu erdi inguru izateraino.

5. BOTILETARA PASATU

Hiru hilabete inguruan gordeta izan eta gradu erdi inguru duenean, botiletan sartzen dugu sagardoa. Botila piloa egiten dugu; izan ere, kilo horiek guztiak botilartzeko botila asko behar dira.

6. SALMENTA

Etixerako baino litro gehiago egiten ditugu. Hori dela eta, inguruetako jendea baserrira etortzen da gure sagardoaren bila. Guk ez dugu kanpora eramaten saltzeko; dena dela, jende asko etortzen da botila bila.



MARIO DEO GRACÍAS

Jeronimo Olaziregi

ARETXABAETA/ETXERAKO SAGARDOA

Aretxabaletako Oro auzoan, Iturralde baserrian, 1.000 botilatik gora sagardo egin dituzte aurten. Urteak daramatzate sagardo egiten, baina etxerako bakarririk egiten dute. Hantxe Jeronimo Olaziregi bizi da eta sendien laguntzarekin baserri inguruetan dituen 60 bat sagarrondoren sagarrekin egin du sagardo berria. "Zuhaitzetako batzuk

40 urtetik gora dituzte, baina beste hogeit berri ere baditugu, bost bat urte dituztenak. Berriek pentsu-zakukada bana sagar eman dute, baina zaharretako batzuek bost eta sei bat zakukada eman dizkigute". Zein sagar erabiltzen duten galdetzean, zera esan digu: "Dozena erdi sagar mota dago: hala nola, gazi-gozaok diren urtebeteak eta urzabalak; mikatza den sagardo sagarra; golden sagarra ere erabiltzen da, baina ez hori bakarririk. Behin erabili genuen eta motel-motela atera zitzaigun sagardo, gozoegia".

Sendien laguntzarekin baserri inguruetan dituen 60 bat sagarrondoren sagarrekin egin du sagardo berria



EDU MENDIBIL

Joxe Mari Beristain

ELOSU/IXAUN JATETXEA

Astigarragako Bereziartua sagardotegitik 1.200 litro sagardo ekarri dituzte Elosuko Ixaun jatetxera eta joan zen urtarrilaren 13an ekin zioten jatetxean bertan sagardotegietako ohiko menua eskaintzeari: bakailao tortila, bakailaoa piperrekin eta txuleta. Postrerako, berriz, intxaurrek, gazta eta etxean egindako irasagarra.

Joxe Marik dioskunez, "joan zen urtean ere sagardo ekarri genuen, lagunartean edateko. Aurten obra batzuk egin eta sagardotegi bezala ere irekitzea pentsatu genuen. Hiru kupel jarri ditugu, eta gastatzen badira sagardo gehiago ekarriko dugu. Momentuz jendea badabil eta behi eroen kontuarekin ez da igartzen jendeak okelari beldurra hartu dionik. Hemen labeldun okela daukagu. Sagardo ere gozoa dago".

Ixaun jatetxeko gela batean sagardotegia egokitu dute eta Bereziartua sagardotegitik ekarri dute sagardo



IBAN ARANTZABAL


Lorentzo eta Juan Domingo Olañeta

UBERA/OLAÑETA BASERRIA

Ainaia hauek euren akordio guztian sagardo egiten dihardute. Euren aita zenak ere egiten zuen eta Lorentzok eta Juan Domingok ohitura horri eusten diote. Sagar berezirik ez dute erabiltzen: "Nahastea da erabiltzen duguna; dena dela, goldekin eta estarkinak edo antzerakoak ez ditugu nahasten, ez dute balio."

Olañeta baserria da Ubera inguruan sagardo egiten ari izan den bakarra gaur egun. Besteren bat ere egon daiteke, baina galtzen dabilen ohitura da. Olañetako sagardoak ez du etiketa beharrik, kalitate labela gustuak ematen dio: "Etiketatu barik doaz gure botilak, etxerako egiten ditugu eta". Etxerako egindakoak ez ote du, ba, kalerako balioko? Jendeak badaki ondo non dagoen Olañeta eta 4.000 litro horiek gastatu baino lehen gerturatu beharko gara kalitateko sagardo edan gura dugunok.

Olañeta baserria da Ubera inguruan sagardo egiten ari izan den bakarra gaur egun



ENEKO AZKARATE

Alberto Altube

BERGARA/HURBIL DIETETIKA ZENTRUA

Errefrau zaharrak dio: *Sagar bat egunero eta sendagileetan aurreratuko duzu.* Kaloria gutxi ditu: 58 cal, hain zuzen ere. C bitamina, potasioa, kalcioa eta fosforoa ditu. Diabetikoek jan dezakete, azukre gutxi duelako, eta gatz gutxi hartu behar dutenendako ere ona da. Kolesterol txarra jaisten du eta ona, berriz, igo.

Digestioa egiteko lagungarria da eta beherakoarekin egonez gero; azala kenduta jan behar da.

Hartziduraren ondoren, alkohola hartzen du; hortaz, umeek, haurdun dauden emakumeek, gibelesko arazoak dituztenek edo tentsio altua dutenek kontu handiarekin edan behar dute.

Sagardotegietako jakiek gatz asko daramate eta horregatik sagardo asko edaten da. Alkohol gutxi du, baina neurritz kanpo edaten da sagardotegietan. Hala ere, hutsik edateko, ardoa baino hobea da.

"Sagardoak alkohol gutxi du, baina neurritz kanpo edaten da sagardotegietan"

Bailaran, labur

EKONOMIA

Copreci kooperatibak 10.000 milioi inbertituko ditu nazioartera zabaltzeko

Copreci kooperatibak 10.000 milioi pezeta inbertituko ditu, datozen hiru urteotan, nazioartera zabaltzeko. Aurten, fabrika bat erosiko du Brasilen eta bere produktua egingo ditu han. Coprecik bi lantegi ditu Euskal Herrian, Aretxabaletan nagusia eta Arrasaten txiki bat, Omico izenarekin. Atzerrian, ostera, hiru dauzka: Txekiakoa eta Mexikokoa Coprecirenak berarenak dira, baina Estatu Batuetan duena erdibana du beste jabe batekin. Guztira, 500 bat langile dabilza erbesteko fabrika horietan lanean. Hala ere, nazioarteratzea ez da izango erronka bakarrik. Datozen hiru urteotan produktu berriak atera nahi ditu Coprecik, batez ere elektronikari. Eta horrekin batera, salmentak nabarmen handitu. /GORKA ETXABE

HEDABIDEAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Goiena elkarteak hitzarmena sinatu dute

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak hitzarmena sinatu dute. Horrenbestez, Diputazioak 9.200.000 pezeta emango dizkio Goienari, honek kudeatzen dituen hedabideak diruz laguntzeko, "Goienak prestatu duen egitasmoa eta ematen dabilen urratsak egokiak direlako eskualdeko komunikazioaren eredu multimedia bat garatzeko". Bestalde, Goiena kooperatibak, egitasmoa garatzean, eredu lantzen jasotzen duen esperientzia Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritzaren esku jarriko du. Horretarako, txosten bat prestatuko du. Txostenak eredu multimediaren atalak aztertuko ditu: eskualdeko telebista, aldizkaria eta irratia lantzeko egitasmoak, egunkariaren bideragarritasun plana, atari informatikoaren egitasmo zehatza eta eskualdeko multimediaren zerbitzu zentralen antolaketan izandako esperientzia. Bailarako sei udalek sinatu dute, dagoeneko, Goiena egitasmoa bultzatzeko hitzarmena. Oñati, Bergara eta Elgetako udalek ez dute oraindik sinatu. /ENEKO AZKARATE

ERREPIDEAK

Elurteetan kaminoa garbitzeko makinak izango dira Arlabanen eta Kurutzetan

Gipuzkoako eta Arabako foru aldundiek eta Nafarroako Foru Gobernuak hitzarmena sinatu dute. Horri esker, errepideetako neguko planak abian jarriko dira. Gure bailaran, Arlabanen eta Kurutzetan elur-makinak jarriko dituzte beharrezkoa denean. Elurra egiten duen egunetan, Gure Ametsa inguruan elurra kentzeko kamioi bat izango da. Eta beste horrenbeste Kurutzetan. Hantxe ere elurra kentzeko eta gatz botatzeko kamioia egongo da. Gipuzkoako Foru Aldundiaren makinak Arabako mugaraino egingo du lan. Arabako Diputazioarenak, ostera, Arrasateko Gesalibar auzoraino. Bi kamioi hauekin, Gipuzkoa eta Araba arteko errepideak irekita izatea espero dute bi instituzioetako agintariek. /G.E.

ONDAREA

Bergarako Santa Katalina ermita konpontzeko lanak hasiko dituzte laster

Bergarako Azkarruntz auzoan dagoen Santa Katalina ermita konpontzeko lanak otsailen hasiko dituzte. XV. mendean eraikitako gotiko berantiar estiloko basiliza joan den urteko martxoan erori zen. Kapirixok, Debagoieneko kultura eta ondarea babesteko elkarteak, erakunde publikoen utzikeria salatzen duen orduan. Lurren erori eta urtebetetera, konpontzeko lanak hasiko dituzte. Obren aurrekontua 22 milioi pezetakoa da eta Gipuzkoako Diputazioak hartuko du bere gain. Santa Katalina ermita Eusko Jaurlaritzaren ondare kalifikatuen zerrendan dago. Eraberritze lanekin batera, indusketak ere egingo dituzte, aztarnaren bat egon daiteke eta ermitaren inguruetan. /AINTZANE IRIZAR

BERGARA

OBRAK

ANTZUOLA

Bideberriko bihurgunea zabaltzeko proiektua idaztea onartu du udalak

Proiektuak Bideberriko errepidea bi noranzkoa izatea jaso dezake

MONIKA BELASTEGI

Gobernu batzordeak onartu egin ditu Bideberri-Zubieta eremuko urbanizazio proiektu tekniko idazteko baldintzak. Bideberriko bihurgunea zabaltzeko eta errepidea bi noranzkoa bihurtu nahi du udalak.



Argazkian agertzen den etxe arteko bihurgune estua zabaltzeko nahi du udalak eta baita errepidea bi noranzkoa egitea ere.

Proiektua idazteko lizitazio oinarria 4.900.000 pezetakoa da, eta esleipena egingo zaion enpresa proiektua idazteaz arduratuko da. Izan ere, udalak komenigarri ikusi du Infernukua taberna pareko bihurgunea zabaltzeko eta errepidea zentzu bikoitzekoa egitea. Helburua, Bolura bidea autoz arintzea da. Asmo hori aspalditik dute udalean, Hirigintza zinegotzi Joxean Etxeberriaren arabera.

BIDEBERRI BI NORANZKOA

Bi etxe erositako dituen Zubietan, bota eta bihurgunea han-

diagoa egin ahal izateko. Infernukua pareko lehenengo bi etxeak. Dagoeneko eraikin bakoitzeko hainbat etxebizitza erositako daude. Etxeak botatzeaz gain,

agian, ibaiari zatia kenduko diote. Bestalde, Bideberriko errepidea, bi noranzkoa izatea dago aurreikusita. Fraiskozuri alde-ara joateko bata, orain bezala, eta,

bestea, Fraiskozuritik, zuzen, Zubietara joateko. Etxeberriaren arabera, horrek Bolura joateko aukera ekarriko luke, baita Artekalea autoz arindu ere.

OÑATI

ERROLDA BERRIA

Biztanleriak gora egin du eta egun 10.769 oñatiar daude erroldatuta

Gehiago dira Oñatira bizitzera etorri direnak joan direnak baino

AINTZANE IRIZAR

Urtetik urtera gora doa Oñatiko biztanle kopurua, eta aurten ere, ditugun datuen arabera, halaxe gertatu da. Iaz, urtarrilaren lehen 10.744 biztanle zituen Oñatik. Aurten, berriz, 10.769 pertsona dago herrian erroldatuta. Beraz, 25 biztanle gehiago.

Hala ere, behin-behineko datuak dira honako hauek, erre-dakzioa ixterakoan, osoko bilkura egiteko zen-eta oraindik, eta hantxe errolda onartzeak ziren. Guztira, 266 alta eta 241 baja egon dira aurten. 105 jaiotza egon dira, eta heriotzak, berriz, 104 izan dira. Kanpotik, berriz, 161 pertsona etorri da herrira bizitzera. Badira, hala ere, herritik kanpora joan direnak ere, 137 pertsona, hain zuzen ere.

Baina bada beste datu positiborik ere, izan ere, INEMek kaleratutako datuen arabera, langabezia beherantz doa herrian, eta une honetan, %3,5ekoa da.

ETXEBIZITZA SOZIALAK

Bidebarrietako etxebizitza sozialak zozketarako onartuen eta ez



Iaz 105 ume jaio ziren Oñatin. Hil, ostera, 104.

AINTZANE IRIZAR

onartuen zerrenda ikusgai dago udaletxean otsailaren 2ra arte. Guztira, 93 lagun sartuko dira etxebizitzetara zozketan.

Aztertutako 800 eskaera ingurutik, 700 bat atzera bota zituen Etxebidek. Orain, kanpora geratu direnek erreklamazioa egiteko aukera dute martxoaren 3ra

arte. Zozketari dagokionez, oraindik data zehazteke dagoen arren, martxoan egingo dute, eta ohi den moduan, publikoa izango da. Behin zozketa egin da, pare bat hilabetera eskuan izango dituzte giltzak etxeotako jabeek, maiatzean, gutxi gorabehera.

ELGETA

MUSEO BERRIA

500 milioi museoa egiteko eta Maala ingurua konpontzeko

Proiektua maiatzeko egiteko dute

IBAN ARANTZABAL

Maalako ingurua aztertuko duen proiektua egingo du Katalunian Ikonos enpresak. 3,6 milioi kostatu da eta ia ehuneko ehuna diru laguntza bidez ordainduko da. Elgetak 200.000 Pta inguru bakarrik ordainduko ditu, beti ere BEZa kontuan hartu barik.

Ikonos maiatzaren amaierarako bideragarritasun txostena egingo du eta bertan mendi museoa Elgetan bideragarri den edo ez, zenbat metro koadro izango dituen, non egin daitekeen (auditoriumaren ondoan seguru-eremua) aztertuko da.

Lehendik dagoen etxe bat edo etxe berri-berri bat izan daiteke museoa egiteko erabiliko dena. Museo hau kulturako planarekin batera lotu behar da, hau da, auditoriumarekin eta baita patronatuak duen etxearekin ere. Etxe honetan barnetegia antolatu daiteke. Proiektu honen barruan agertzen da eskolako umeendako jolastoki estalia ere.

Lanak bideratze-ko, alkateak jarraipen

batzordea egitea proposatuko du eta Kulturako zinegotzia, Irakaskuntzako zinegotzia eta Kiroletako zinegotzia egongo dira alkatearekin batera. Bestalde, herriko kultura elkarte, guraso elkarte eta abarrek ere puntualki parte hartuko dute bileretan eta guztien iritzia entzun ahal izango da.

EHKO ZINEGOTZIA ABSTENITU EGIN ZEN

Bilkuran, proiektua eskatu behar zela zioen puntuan abstenitu egin zen EHKO Kultura zinegotzia, proiektua aztertzearen denborarik ez diola eman esanez. Goizean bertan jaso zuen deialdiaren berri eta ezinezkoa izan zaio guztia aztertzea.

Ikonos gehiago edo gutxiago behar den zehaztuko duen arren, museoa bakarrik 300-400 milioi kostatu daiteke. Maalako inguru guztia beste 150 milioi inguruan ibil daiteke. Zenbaki hauek museoaren kalitatea bermatzera bideratuta daude eta gutxi gorabehera ak dira.

Zertzelada

Proiektua bideratze-ko, udaletxeak jarraipen batzordea izendatu eta lauko taldea osatuko du zinegotzi eta alkatearekin batera

ARRASATE

MINBIZIARI AURRE EGITEN

Vanessa Vallejo

“Gaixotasuna menderatuko dudan itxaropena eman didate”

UBANE MADERA

Vanessa Vallejo mondragoe-tarrak 19 urte bete zituen pasa den urtarrilaren 14an, eta 15 urte zituenetik, biriketako minbiziarekin borrokan dabil. Orain, jendeari laguntza eskatu dio, jasotzen ari den tratamendua ordaintzeko. Jendearen erantzuna bikaina izan da; otsailaren 10ean jaialdi bat antolatuko dute.

— Non hartzen duzu tratamendua?

— Iruñeko Opusean. Abendua ezkeron nabil han. Bi astean behin joaten naiz eta sei egunez egoten naiz ingesatuta, tratamendua jaso bitartean.

— Eta nolatan Iruñean?

— Hasieran, Donostian hartzen nuen tratamendua: 97an hasi eta hiru urtean egon nintzen han. Bizkarrezurmuina birlandatu zidaten eta gaixotasuna menderatuta zegoela zirudienean, berriro ere azaldu zitzaidan. Donostian zidaten berriro ere duela hiru urteko tratamendu berarekin hasiko ginela, eta argi zegoen tratamendu hori



gaixotasuna bere horretan uzteko zela, ez hari aurre egiteko. Orduan, beste leku batzuetan probatzea erabaki nuen.

— Eta orain, zer moduz?

— Oso ondo. Beste tratamendu bat ematen didate, guztia kimioterapiaren oinarrituta. Gaixotasunari aurre egiteko da eta menderatuko dudan itxaropena eman didate. Iruñean beste birlandatze bat ere egingo didate: ahizpa

gazteenaren bizkarrezurmuinak balio dezakeen edo ez frogatzen dabilta orain. Baina, bitartean, tumorra geroago eta txikiagoa da.

— Baina, horretarako dirua behar da...

— Bai, tratamendua bera eta ospitalean egin beharreko egonaldia oso garestiak dira; orduan, jendeari laguntza eskatzea erabaki genuen. Nik ezin dut lanik egin, eta etxean ere zaila da horri aurre egitea.

ARAMAIO

EUSKARA PLANA

Udalak euskara hutsez lan egingo du, herritarren %87 euskaldunak direlako

UBANE MADERA

Osoko bilkura egin zen Aramaion herenegun eta landutako gaien artean, bi mozio, idatzi bat eta euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu ziren.

1997an hasi zen UEMA plana egiten, euskararen erabilera normaliza dadin. UEMAK zenbait helburu finkatu ditu eta nagusia da Aramaio Udalak euskaraz lan egin behar duela.

Izan ere, Eusko Jaurlaritzako legeak zehazten duenez, %70etik gorako herritarrek euskaldunak diren herrietan udalak euskaraz lan egin behar du, eta Aramaion %87 dira euskaldunak. UEMAREN egitasmoa datozen bi urteotarako da, beraz, epe horretan gauzatzea espero da.

PRESOEN ETA PERTSONEN ESKUBIDEAK BERMATU

Horrez gain, bi mozio aurkeztu ziren, biak ere EAJK eta EAK aurkeztutakoak. Batean, presoek eskubideak aitatu ondoren, pertsonen eskubideak herrietan bizikidetzat bermatzeko oinarriak direla esaten

zen. Gainera, zera gaineratu zuten: eraketa politiko eta administratiboa ulertzeko egon daitezkeen desadostasunek ez dutela zilegi egiten pertsonen aurkako indarkeria. Hori dela eta, *Bakea, ETA ez leloarekin*, udalaren balkoian pankarta bat jarzea proposatu zuten.

Horren aurrean, EHk beste idatzi bat aurkeztu zuen, pankarta hori jarri gura izateak presoek eskubideekin zerikusirik ez duen eskaria dela esanez; presoek dituzten berezko eskubideak EAJren eta EAren interes politikoetarako erabili gura izatea ere salatu zuen. Idatzi hori datorren osoko bilkuran aztertuko dute.

UDALERRIEI EMAN BEHARREKO DIRUAREN GAINEKO LEGEA ALDATZEKO ESKARIA

Zertzelada

Euskal presoek dituzten berezko eskubideak EAJren eta EAren interes politikoetarako erabili gura izatea salatu zuen EHk

Bukatzeke, Arabako Diputazioak arau bat du udalerriei eman beharreko diru laguntzak bideratzeko. Arau horrekin ados ez dardela esan zuten EAJK eta EAK bigarren mozioan, eta legea aldatzeko eskaera egin zuten.

ESKORIATZA

ZERBITZU BERRIA

Olio erabilia birziklatzeko zerbitzu berria abian da

Ecograss enpresa arduratuko da bilketarekin

INIGO BIAIN

Joan den egubakoitzean birziklatzearekin lotutako zerbitzu berria estreinatu zuten Eskoriatzan. Izan ere, Donostialdeko ECOGRASS enpresa, etxeko olio erabiliak biltzen jarduten duena, lehenengo aldiz hurbildu zen Eskoriatzako azokaraino, fur-

goneta baten. Olio bilketa hau bederlatzi egubakoitzatan egingo da urte osoan, eta lehena hilaren 19an izan zen (hurrengo martxoaren 2an izango da). Erabilikoa koipe hori eramaten duenak saritxo bat jasoko du, gainera: birziklatutako olioarekin egindako xaboi puska, hain zuzen ere.



Aurreko astean joan zen lehenengoz ECOGRASSeko furgoneta azokara.

INIGO BIAIN

ARETXABAETA

ETXEBIZITZA BERRIAK

Beroa lantegia abuztuan joango da Bainuetxeko industrialdera


Lantokiak erdigunean utzitako lursailea, 130 etxebizitza egingo dituzte

AMAGOIA LASAGABASTER

Aretxabaletako erdigunea aldatzen dabilta azken urteotan. Une honetan, Durana kaleko etxe zaharrak konpontzen eta etxe berriak egiten dabilta Lora-mendi aldean. Hala ere, herriak abuztuan izango du aldaketa nabarmenena. Izan ere, hilabete horretan joango da Araba ibilbideko Beroa lantegia industrialde berrira.

Bainuetxe industrialdeko lanak oso aurreratuta daude. Dagoeneko, Beroa kokatuko den pabilioia eraikita dago. Hala ere, lantokiak abuztuko oporraldira itxarongo du lekuz aldatzeko.

Bestalde, Araba ibilbidean geldituko den hutsunean 130 etxebizitza egingo dituzte. Udalak Gasteizko Urbasko eraikuntza enpresari eman dio lanak egiteko ardura; gauzak horrela, eta lau solairuko etxebizitza eta barrualdeko plaza eraikiko ditu hantxe.



Beroan egingo diren etxebizitzaren etorkizuneko irudia.

Udaletxeak eraikuntza enpresarekin aurrez hitzartutako epe-

ak betetzen badira, irailean hasiko dira etxebizitza berriak egiten.

Zabalik

MARKOS
BALENTZIAGA

Oroimena, oroimiña

Azken asteetan Alemaniako kanpo arazoetarako ministroa dan Joschka Fischeren izena eta erretratua beñ eta barriro erakutsi dittue mundu zabaleko hamaika periodiku eta telebistak.

Morrosko zerdena da ointxe be bere berrogeita hamabi urteetan Fischer jauna, baiña bere burua erretratu horretan ikustia ez dabela gogoko izen egingo neuke; izen be, erretratuok ez dabe morroskoa Bavariako garagardotegiren bateko lehen txotxean erakusten. Ez, seguru; oiñ hogeita sei edo zortzi urte inguru einddakuak dia eta!

Gaurko politikan "berdia" dan Fischer jauna, sasoi hartan Joschka "gorrixa" zan, "gorri" miñ-miña gañera; eta erretratuak ederto erakusten dabe polizía bati egurra emoten dihardotzala. Orduko mutil gaztia ministrua da gaur, eta damututa dao, jakiña!

Ikustekua da egun hartan Joschka hasarre zala bizkarran igarri zotsan poliziarren gaur eguneko aurpegia be: gizonkote malutz askua dao. Eta ogibidez jendian buru-bizkarrak berotzen ibiltan dianak ezin leizkela ikutu erreibindikatzen dau, Fischeri orduan einddako erretratu malapartauak erakusitxaz.

Denbora hartan Pirinioen alde honetan "grisak" zian eguzkixaren laguntzailiak jendiaren berotze-lanetan, agindu ahala emonian, oporretarako asti barik jarduten zebenak.


Pirinioetako hego alde beronetan, baña, oiñ Aznarren eta Miguel Sanzen modukuak dauzkagu aginte mutil bihurtuta. Eta, jakiña, galderia bor-borrian dator: zer eitten zeben sasoi hartan Aznarrek eta Miguel Sanzek, -eta beste batzuk- edadez Fischerengandik aparte ez dabiztenak? "Grisen" edo guardia zibillen aurrian antxintxika ibiltan ete zian?

Pentsatzen jarri eta neuri errezaue eitten jat kortxo pusketa bat beratuta imaginatzia Sanz edo Aznar, hogeita bat edo bi urteko mutil gaztiak, orduko polizien aurrian, polaiñak jasota, "li-ber-tad!", "li-ber-tad!" diarka irudikatzia baño.

Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAK bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com

Mendien
industrializazioari stop

Azpiegitura erraldoi guztiekin gertatzen den arazo berarekin egin dugu topo zentral eolikoan auzian ere: boteretik ezartzen den isiltasunarekin. Ez da gaia kalean eztabaidatzen, ez da benetako gizarte debate bat sortzen. Berdin-berdina ari da gertatzen Abiadura Handiko Trenarekin, Bizkaian egin nahi diren hainbat zentral termikorekin eta abar. Kaleko jendeak ez dauka iritzi sendo eta argirik; zerbait entzun duela, baina... kalean informazioa zabaltzen ari garenak betiko talde eta elkarteak gara, betiko "anti-todoak".

Euskal Gobernuaren egitasmoaren arabera, 2005. urterako, kontsumitzen dugun argindarraren %3 haizeindarraren bidez lortu nahi da, eta horretarako 800 metro altueratik gorako 13 leku aukeratu dira: Irukurutzeta-Karakate, Gazume, Zamiño-Izaspí, Elgea-Urkilla, Ordunte, Ganekogorta, Oiz, Mandoegi, Kolometa, Arkamo, Badaia, Iturrietako mendiak eta Alda-Arlaba.

Momentuz, Elgea-Urkillako zentrala ari da martxan, baina %3 hori lortzeko (175 Mw) beste hiru edo lau ere egin behar dituzte eta, gutxienez 30 Km mendi mutur industrializatu. Hau, beti ere, Eusko Jaurlaritzakoek emandako informazioaren arabera, guk ez baitugu uste lau edo bost zentralekin hainbeste argindar lor daitekeenik.

Haizearen bidez lortuko den argindarra ez da gai izango ez energia nuklearra ez termikoa ordezkatzeko (ezta gutxiago ere), orduan, zentral eoliko hauek gehi nuklear,

termiko..., eta abar izango ditugu. EAEn urtetik urtera argindarra %4 gehiago kontsumitzen dugu, orduan nork esaten digu epe ertain edo luzean ez dituztela aukeraturako leku guztietan zentralak egin nahiko. Ingurugiroa errespetatuz bizitzeko aukera bakarra gaur egungo gizarte eredu kontsumista eta kapitalistari freno jarzea dela deritzogu.

Zentral eolikoaren proiektuaren atzean daudenek (EVE, Iberdrola, Gamesa, BBVA) energi iturri eolikia monopolizatu nahi dute. Ondoren, ahalik eta argindar gehien kontsumiaraziz, euren diru irabaziak biderkatzeko. Horrela, zentral eolikoak beste diru iturri bat izango liriteke beraientzat. Eredu honek energia eolikoaren autogestiorako inolako aukerarik ez du uzten ez eta kontsumoaren jaitsierarik planteatzen.

Zentral eolikoaren planen eragina, mendi eta nekazaritza-lurrek ez ezik, animaliek, landareak, zuhatzek eta, oro har, ekosistemek ere jasango dute. Errepideen eraikuntzak, aerosorgailuen ezarpenak (60 metro luze, hiru metroko diametroaz) eta beste eraikinek mendigainak zuzenean txikitzen dituzte. Paisaia erabat hondatzen dute, baita isiltasuna ere etengabeko zaratarekin.

Arao energetikoaren aurrean hau da gure jarrera: energia hauen deszentralizazioa eta energia kontsumoaren jaitsiera, industrian, garraioetan eta etxeetan; eta hori antolakuntza ekonomikoa, soziala eta politikoa zuzentzen duten baloreen aldaketa sakon batek lagunduta. Amalurrari zor diogun errespetuaz ohartuko garelakoan, osasuna eta askatasuna.

ZENTRAL EOLIKOEN AURKAKO TALDEA

Ibaiertzeko landaretza

Globalki pentsatu eta globalki zein lokaliki jardun" da mugimendu ekologistaren maximetako bat. Batzuetan, salatzen ditugun gaiek milioitako aurrekontuak eta azpiegitura handiak izaten dituzte atzean; eta beste batzuetan, itxura batean garrantzi handikoak ez diruditen arren, zenbait erakunde politikok ekosistema naturalak modu okerrean tratatzearekin zerikusia duten gaiei beldur izaten diegu. Egun haueetan jakin dugu Aldundiko zenbait langile Deba eta Aramaio ibaietako "sustraiak" (ibaiertzeko landaretza) garbitzen ari direla Arrasateko Udalaren aginduetara.

Behin baino gehiagotan esan dugu ibaiak, ekosistema biñak direnez, ahalik eta modu naturalenean zaintzea komeni dela. Ez gaude ados ibaiak bideratzearekin (estalita zein estali gabe), ezta "sustrakak" (ibaiertzeko landaretza) kentzearekin ere, batetik, ingurugiroaren alde-tik garrantzitsuak direlako -zuhaiak eta zuhaitza-landareak forma zein kolore aldetik balio handiko paisaia aberats bereizgarria sortzen du-, eta bestetik, ibaiertzeko landaretza bereziki anitza den fauna baten habitat naturala delako.

Eraikuntzek ibaiertzak zanpatu ez dituzten kasu bakanetan ahalegin berezia egin beharko genuke horietako landaretza ahalik eta gutxien ukitzeko. Eta jarduerak ahalik eta gehien urrundu beharko lukete ikuspuntu natural, paisajistikoa eta, azken finean, ekologikotik erabat okerrak diren ideietatik. Naturala ez da "sustraka" edo zikinkeria.

Arrasateko Udalari ibaiertzeko landaretza ez mozteko eskatu nahi diogu, eta, zerbait egitekotan, horiek bertakoak eta egokiak diren landare-espeziekin birpopulatzeko. Arrasateko zenbait lekutan ibaiertzak agortzen diren bitartean, esker-tzekoa da Ingurugiro zinegotzia, behintzat, ez dagoela konforme jakitea.

EKOLOGISTAK MARTXAN

Arrasate

El Salvador

Gipuzkoako Oscar Romero Solidaritza Batzordeak hiru kontu korrante zenbaki zabaldu ditu, El Salvadorren lurrikarak eragindako hondamendia jasan dutenei laguntasuna eskaintzeko. Lerro hauen bidez, laguntasuna eskaini duten eta eskaintzeko asmoa duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Bestalde, Harremanek eta Antzuolako Elkartasun Taldeak (Anelkar) ere bat egin dute Oscar Romeroren ekimenarekin.

Hauek dira kontu korrante zenbakiak:
Kutxa Gipuzkoa: 21010001140004048278
Euskadiko Kutxa: 30350059810590021346
Banco Guipuzcoano: 00420046080100940620
Anelkarrenak, ostera, beste bi hauek:
Kutxa Gipuzkoa: 12133
Euskadiko Kutxa: 10879500

MILA ANDUEZA

Bergara

Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



Eztabaida

Etxebizitzaren arazoa larria da, gazteendako bereziki. Azken urteotan etxe asko egin dira balaran: eskaria handia da eta, ondorioz, etxeen prezioek gora egin dute

nabarmen. Adituek diotenez, prezioak ez dira horrenbeste igoko datozen urteotan. Prezio merkeagoan saltzeko, babestutako etxebizitzak ere egingen dabilta geurean. Baina, ez gura

beste, askoren ustez. Bereziki gazteendako eta, oro har, behar gehien dutenendako irtenbideak aurkitzeko, Denontzat taldea sortu da Mondra-

Ahal den guztia egiten da etxebizitzaren arazoa konpontzeko?

Merkatura begira egindako politika aldatu beharra



ANTXON MENDIZABAL
Denontzat taldekoa

Orain hiru urte Eusko Jaurlaritzan egindako azterketa batean zera zioten: leku bakoitzeko erdi mailako soldata oso-oso etxebizitza erosteko ordainduz, urte bat eta erdi erabili behar zuten Amerikako Estatu Batuetan, hiru urte European eta zazpi urte eta erdi Hego Euskal Herrian. Honekin, erantzuna emanda dago. Azkenengo urteetan, gure komunitate autonomoan Eusko Jaurlaritzak eta udal batzuek egindako etxebizitzaren eskaintza bereziek egoera bigundu dute, baina arazoa, egun, askoz larriagoa da.

Urteetan zehar, soilik merkatura begira egindako etxebizitzarako politikak herrian daukagun dualitate soziala aregotu egin du. Sektore batek merkaturaren eskaria bete du eta bestea, aldiz, eskari soziala, bere bizitza ia osoa hipotekatuz edo etxebizitzaren merkatutik at geldituz. Komunitateak berak ere sufritzen du egoera, eta horrela, gazteek atzeratzen dute beraien bizi-erabaki proiektua, eta haurrak eduki nahi dituzten emakumeek, asko pentsatuz, bere horretarako adin biologikoaren mugan erditzen dute. Barbarie hau gainditzeko ezinbestekoa da garapen ereduaren eztabaida eta sektore publikoaren esku-hartzea: lurzorua burtza publikoa, alokairuzko etxebizitza sozialak, gazteei begira plangintza bereziak eta hutsik dauden etxeak erabiltzeko neurriak.

Eta errentan hartzeko etxebizitzak?

Ekonomia ondo doala entzuten da toki guztietan. Hala ei da, bestela ezin ulertu zelan ordaindu daitekeen horrenbeste diru etxebizitza bat erostearren. Berdin da etxebizitza zaharra edo berria izan. Uste dut etxebizitzaren arazo honi ez zaiola behar den moduan eusten: babestutakoak edo sozialak eraikitzen dira, bai.

Baina, zenbat eta zer tokitan? Bestetik, errentan hartu nahi izanez gero, zein dago prest hilean 80.000 pezeta ordaintzeko? Erakunde publikoek gehiago egin dezaketela uste dut: ondo dago udalek Jaurlaritzari lurrak lagatzea etxebizitza sozialak egiteko, baina hori baino plangintza sakon eta zehatzagoa egin behar-

Administrazioa saiatu, saiatzeko da



MIGUEL ANGEL DELGADO
Etxebizitza sailburuordea

Lurra, alda ezina den lehengaia, Esku pribatueta dago gehienbat, Estatuko oinarrizko legediak babestutako ukitu ezina den jabegoan. Etorkizuneko garapenerako behar den lur berria administrazioek sailkatzen dutenean, partikularrak -dagoeneko onuratu- ez du ez eta onartzen derri gorrez bete behar lukeen funtzio soziala betetzen, hau da, eraikitzea, prezioa bere gustukoa izan arte.

Beste gai guztiek ez dute eragin handirik. Lanarekin (diruarekin) lurra lortu duenak, ez da eraikitzearen kostuez kezkatzen. Horren kezka da etxebizitza eskaleek ordain dezaketan gehiengoak jakitea, horrela prezioa finkatu ahal izateko.

Horrela, euskal erakundeei gelditzen zaien tresna bakkarra zuzeneko interbentzioa da, babes ofizialeko etxebizitzak sustatuz, laguntzak emanez eta lege propioak eginez, beti ere Estatuko oinarrizko legediak mugatuta.

Azken bost urteetan babes ofizialeko etxebizitzaren sustapena gehitu, eta benetan aurrekoia den hirigintza lege bat egin badugu ere, bertan planteamendua arindu, kudeaketarako tresna berriak finkatu eta parte hartzea bultzatzen delarik, jakin badakigu etxebizitzak ez duela herritar guztien sortzen kezka, osasuna edo hezkuntzarekin gertatzen den bezala. Kezka sortzen die soilik administrazio eta jabe batzuei eta, bereziki, etxebizitzarik ez dutenei.

Gora eta Behera

LEHENGO AMAK



Euken jaio artian ez naiz konturatu gure amak zelako meritua dauken. Lehengo andrak ez zeuken haurdunaldixan kontrolirik,


ez epiduralik, ez pañalik, ezta beste gauza asko be; gizonak be nekez hartzen zebe parte umia hazteko eta hezitzeko orduan, hori batez be amaren eginbiharra eta arduria zalako. Esker eta hondra gutxi jaso dabean ama danendako dira hitz honek.

ARGI IBILLI!



Euskal kutsua daukan dana eta pentsamendu bakarretik irteten dan dana desprestigiatu eta isildu eragin nahi dittu Garzonek. Hortxe dauzkagu azken adibidiak: AEK, Pepe Rei, edo Zabaltzen. Hala segi ezker, testu hau idaztearren edo semiari euskeraz berba egittearren Garzon nere billa etorriko da. Ah,

kontuz Goienkari-xan be!



JONE LARRAÑAGA
Antzuolako Udaleko langilea

Koplak

Txotxetikan

San Sebastian inguruan Sagarrak duen kutsuan, Afaldutzeko beste txoko bat Izaten degu buruan.

Tortila eta takua txuleta, postre, sikua, eta hori dena berdindutzeko da txotxeko sagardua.

Hain goxoa dan zukua bakalauz lagundua, eta txuleta osatzen gara zoragarria menua.

Behi zoroak hainbeste sagardotegi albiste, behiak aizu, ez dakit baina gu zoratuko gaituzte.

Altzairu edo egurrezko kupelak mila sekreto, temperatura freskoan hartu berotuta bukatzeko.

Kupel batetik bestera gustukoena hartzera, eta buelta bat eman ondoren kupel guztiak antzera.

JOSEBA LARRAÑAGA

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA

Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

Zelan ikusten duzu PPren atzerritarren legearen erreforma?

Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA:
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkorobereibar,
Josemari Velez de Mendizabal

SAILLETAKO ARDURADUNAK
Marijo Deogracias (Kultura,
Denborapasa, Telebista),
Edu Mendibil (Kirola,
Non Zer), Aintzane Irizar
(Berri-Zakua),
Goio Arana (Diseinua),
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Uxue Zabaleta, Arantzazu
Lagunilla, Nerea Zallo
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Aitziber Langaran
MAKETAZIOA
Goio Arana, Maddi Trutxuelo,
Itzi Iturbe
TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA: Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Bañez Doktolea kalean etxebizitza salgai. 73 m². Berogailua du. 943 77 14 82. Deitu 20:00etatik aurrera.

Gasteiz. Unibertsitatearen ondoan etxebizitza salgai. 943 76 12 02.

Bergara. Zubiaurre auzoan etxebizitza salgai. 100 m². 943 76 28 49 edo 627 64 20 55.

Bergara. Martokan etxebizitza salgai. 943 76 25 77.

Bergara. Zubiaurre auzoan etxebizitza salgai. 943 76 46 90.

Bergara. Matxiategin etxebizitza salgai. 943 76 34 33.

Arrasate. Larrea plazan etxebizitza salgai. Lau gela. 943 79 50 61.

Arrasate. Pablo Urangan etxebizitza salgai. 943 79 40 58.

Arrasate. San Andresen etxebizitza salgai. 58 m². Guztiz berritua. 679 30 42 31.

Arexabaleta. Etxebizitza salgai. 943 79 04 45. 13:00etatik 15:00etara.

Arrasate. Musakola auzoan etxebizitza salgai. Lau loge- la, sukaldea, egongela, bi komun (kanpoalderea) eta bi terraza. Berogailua eta igo- gailua. 943 79 27 88.

102. EROSI

Bergara. Hornitu gabeko apartamentu txiki bat erosi edo alokatuko genuke. 610 79 33 33.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Erdialdean etxebizitza alokatzen dut. Horni- tua. 670 77 01 57.

Bergara. Etxebizitza aloka- gai. 943 76 15 40.

104. ERRENTAN HARTU

Antzuola. Etxebizitza har- tuko genuke errentan, urte- beterako. 943 75 21 00. Gotzon.

Aramaio. Eskeriazan edo Arexabaletan etxebizitza behar da errentan hartzeko. 629 92 48 82.

Arrasate. Edo inguruetan bi pertsonarendako etxebizitza bila gabiltza. Presa handia dugu. 943 79 36 82.

Arrasate. Bikote batek etxea behar du errentan hartzeko. 600 04 71 67.

Bergara. Etxebizitza aloka- tuko nuke. 600 60 05 31.

Bergara. Etxebizitza aloka- tuko nuke. 943 76 53 18. Maite.

Bergara. Etxebizitza erren- tan behar dut lehenbailehen. 943 76 09 95. Deitu 19:00eta- tik aurrera.

105. ETXEA OSATU

Oñati. Bi lagunendako loge- la libre dago etxe konpartitu baten. 943 78 10 28.

Bergara. Irakasle bat beste norbaitekin bizitzeko prest. 943 76 03 53.

Bergara. Oheak alokatzen ditut. 943 76 43 95.

Arexabaleta. Gelak aloka- tzen ditut. Sukaldea ere era- bil daiteke. 627 64 27 13.

2/ GARAJEAK

201. SALGAI

Garajeak salgai Antzuolan eta Bergaran. 670 49 87 40.

Bergara. Burdiñatan 90 m²ko garaje itxia salgai. Hiru auto sartzten dira. Ura dauka. Ondo prestatuta dago. 943 76 26 82.

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Boni Laskurainen garajea errentan ematen da. 943 76 57 04.

Arexabaleta. Garajea aloka- tzen dut Errekabaren kalean (Anbulatorioaren aipian). 943 79 71 57.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Arrasate. Ura eta arginda- rra dituen lokala salgai. 70 m². 943 79 76 95.

303. ERRENTAN EMAN

Bergara. Irala kalean loka- la errentan. 70 m². 943 76 51 94.

304. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Gazte talde batek lokala behar du errentan har- tzeko. Merkea izan daдила. Tel.: 943 79 26 19. Mikel.

Arrasate. Gazte batzuek lokal bat alokatu nahi dute. 943 77 01 50. Mikel.

Bergara. Gazte talde batek lokala alokatuko luke. Mer- kea bada, hobeto. 626 95 21 02.

305. BESTELAKOAK

Bergara. Taberna alokatzen dut. 656 77 22 91.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Esperientziadun emakumea gertu etxeko lanak egiteko. 943 77 06 74.

Esperientziadun neska ger- tu egun erdiz dendaren baten lan egiteko. 943 76 10 11.

Ile apaintzaile profesionala

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEA OSATU
106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK

201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK

301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

4. LANA

401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA

501. ESKAINTZAK
502. ESKAERAK
503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA

601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK

701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK

801. SALDU
802. EROSI

803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK

901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DELIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

Egoera onean eta oso ondo zainduta. 100.000 Pta. 943 76 05 93.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Boxer txakurkumea salgai. Oso pedigrí onekoa. 626 96 23 90.

703. EMAN

Txakurkumeak opari. 676 43 01 41.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Koflach markako mendiko plastikozko botak 5.000 peze- tan salgai. Zenbakia: 40. 943 76 40 87. Esther.

Egongelako besalkia eta mahaia salgai. 943 76 37 80.

Kiwiak. Baserriko kiwiak sal- gai. 943 79 97 84.

Garbigailua. Newpool markako garbigailua salgai. 850 b/min. Urte eta erdi du. 30.000 Pta. 943 79 40 44 edo 943 77 18 19.

80ko hamarkadako punk musikako LPak salgai. 653 74 83 88.

Oñati. Egongelako armaru eta beirazko apala salgai. Guztiz berriak. Erdi-prezioan. 943 78 20 46.

Bergara. Akuarioa salgai, armaru eta guzti. 120 litro. 943 76 27 81.

Arrasate. Estreinatua barik dagoen gasoliozko berogailua salgai. 943 79 24 66. Kopa.

Crolls markako lehorgailua salgai. 'Gutxitan erabilia'. 15.000 Pta. 609 77 01 33.

Bizikleta. Mendiz markako lasterketako bizikleta salgai. Bi urte ditu: Neurria: 54. Columbus SLX koadroa, Shimano 600 aldagailuak. 943 79 28 50.

Akuaria salgai. 120 litro. Filtro eta berogailuarekin. Egoera ona. 943 79 71 59.

Ekipo elektrogenoa eta Honda markako soldatzeko motora salgai. 943 76 11 21. Iñigo.

Entseatzeko aproposak diren bi baffle salgai. 150 W. Prezioa: 18.000 pezeta bakoi- tza. 943 71 46 79. Arratsal- dez.

Olivetti markako kutxa erregistratzailea salgai. ECR 2300 modelo. Eurotarako prestatuta. Berri-berria dago. 943 79 28 13 edo 79 48 74.

Opariak globoetan sartzeko makina salgai. 943 79 28 13 edo 79 48 74.

Play Station emuladorea salgai. 4.000 Pta. 943 79 68 19.

Mikrouhin-labea salgai.

Egoera ona. 10.000 pta. Egurdieta. 943 76 55 63.

802. EROSI

Txanponak. Metal guztie- tako txanponak eta bankuko billeteak erosten dira. Deituz gero, bila joango naiz. 945 44 50 44.

Bi liburua hauek erosiko nitu- ke: *Oñatiko historia eta arte bilduma* eta *Sabin Irizarren Txingo* (Ediciones Mensajero 1973). 943 78 30 11. Jon.

Arropa lehorgailua salgai Egoera ona. 646 26 10 09 edo 699 38 90 73. Herminia.

806. GALDU

Arrasate. Urtarrilaren 11n, eguena, eraztuna galdu nuen Mondragoetik Garagartzara- ko bidean. Urrezkoa da eta pieza urdinak ditu. Balo sentimental handia du. 943 76 12 04 edo 627 37 78 23.

Katua. Lau urteko katu sia- mesa galdu da. 943 76 06 82.

Bergara. Urrezko eskum- turrekoa galdu nuen San Antonio eta San Joazepe arte- an. Eskertuko da. 943 76 42 04.

Bergara. Harri zuria bat duen urrezko eraztuna galdu nuen urtarrilaren 20an Espolotan. Eskertuko da. 943 76 47 53.

Bergara. Forro polar gorri bat galdu dut. 943 76 37 56.

9/ HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Arrasate Gasteizera. Jundi- zoko industrialdean edo Gas- teiz bertan lanean gabiler- norbaitekin harremanetan jarri nahi dit, bidaija eta gas- tuak erdibana egiteko. 943 79 27 68. Lurdes.

10/ RELAX

1.004. BESTELAKOAK

BOLERA CLUB DE PLAZA

KOKAPENA Beasain-Zumarraga errepidea (9,8 Km) Gasolindegia- ren ondoan, 100 metro eskumara.

Bisitza gaitzazu eta ez gaituzu ahaztuko.

Emakume ugari aukeran

Aparkaleku zaindua Donostiatik 45 Km-ra 12:00etatik aurrera zabalik **943 72 12 35**

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako deiak bakarrik iragarriko dira.

943 76 92 71

Zure iragarkia 60.000 lagunek irakurriko dute!

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 1.500 PTA (+BEZ) ORDAINDUKO BEHARKO DIRA MODULUKO.

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarki- en ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

SARA MERENDERUE

Bi zerbitzari behar dira.

LAN BALDINTZAK
Astean bi egun jarraian jai.

OPORRAK
Abuztuan 3 aste,
Aste Santuan 6 egun
eta Gabonetan 10 egun.

943 77 15 86
(Eduerne)

lan bila dabil. 943 79 53 57 edo 636 41 29 27. Maider.

Bergara. Emakumea gertu astebukaeretan etxeko lanak egiteko. 943 76 03 75.

Arrasate. Esperientziadun emakumea gertu martitzen- etan eta eguenetan, ordu- ka, etxeko lanak edo antze- koak egiteko. 943 77 10 20.

Arrasate. Esperientziaduna gertu edozein adineko ume- ak zaintzeko, orduka. 943 79 59 78.

Arrasate. Esperientziadun neska gertu umeak zaindu edo denda baten lan egite- ko. 943 79 69 66. Ainhoa.

Bergara. Jatetxeak edo loka- lak garbitzeko gertu. 943 76 00 90.

Emakumea prest pertsona nagusiak zaintzeko. 629 01 56 91.

Arexabaleta. Geriatria eta klinika laguntzailea prest zaharrak eta gaixoak zain- tzeko. 609 77 01 33.

Bergara. Lan egingo nuke goizeko 11:00etatik arra-

tsaldeko 16.00etara edo 17:30era. 646 26 10 09 edo 699 38 90 73. Herminia.

402. ESKAERAK

Debagoiena. Trailer gidari esperientziaduna behar da, gertuko bidaiak egiteko. 609 90 20 99.

Bergara. Emakumea behar da umeak zaintzeko. 943 76 19 27. Deitu 19:00etatik aurrera.

Bergara. Taxirako gidaria behar da. 670 60 64 00.

Aramaio. Jatetxe baten zerbitzaria eta sukaldaria behar dira. 945 44 53 85.

Bergara. Zerbitzaria behar da kafetegi baten. 943 76 59 28.

Arrasate. Emakumea behar da etxeko lanak egiteko, ordu- ka. 943 79 77 57. Deitu 20:00etatik aurrera.

Bergara. Emakumea behar da domeketan eta jaiegunetan okindegian lan egiteko. Gidatzeko baimeina beha- rrezkoa da. 943 76 02 57.

Arrasate. Neska behar da etxeko lanak egiteko. Deitu 19:00etatik aurrera. 943 79 38 55. Atxen.

Bergara. Sukaldeen eta barran lan egiteko bi lagun behar dira. 943 76 18 49.

Bergara. Azpeitxi jatetxean zerbitzaria behar da. 943 76 55 00.

Zerbitzaria. Taberna baten asteburuetan lan egiteko neska behar da. 943 79 00 34.

Arrasate. Emakume eus- kalduna behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egite- ko. 943 79 24 33.

Pertsona bat behar da lokal baten gogailako eskola parti- kularrak emateko. 653 74 95 89.

Arrasate. Jostuna behar dugu konponketak egiteko. 943 77 06 77. Deitu merka- taritza-orduetan.

403. BESTELAKOAK

Bergara. Lanak ordenagai- luz pasatzen dira. 943 76 16 83.

5/ IRAKASKUNTZA

501. ESKAINTZAK

Bergara. Ingeles Filologian lizentziadunak ingelesezko eskolak ematen ditu. Ana. 943 76 30 28 edo 659 33 17 41.

Oñati. Tituludun irakasleak pianoko lengoaia musikale- ko eta harmoniako eskolak ematen ditu. 943 78 13 45.

Arrasate. Laguntza eskola ematen dut. 649 22 51 07.

502. ESKAERAK

Bergara. LH-1eko elektrizita- te eskolak hartuko nituzke. 943 76 34 26. Haritz.

Arrasate. DBHko 3. maila- ko eskola partikularrak har- tuko nituzke. 943 78 85 08.

Batxilergoko ikasle batek eskola partikularrak hartuko lituzke euskaraz; batez ere, fisi- ka, kimika eta matematikaz- ko eskolak. 943 71 42 31. Gaeuz deitu.

Arrasate. DBHko 3. maila- ko ikasle batek eskola parti- kularrak hartuko lituzke. 943 79 06 32 (gaeuz).

Arrasate. Ingeniaritza Tek- nikoko 1. mailako ikasleak fisi- ka eta matematikazko esko- la partikularrak jasoko lituzke. 943 79 53 90. Deitu 20:00etatik aurrera.

Etxeko lanak egiteko per-

tsona behar da. 08:00etatik 15.00etara. Sukaldaritzan egiten jakin behar du. 619 57 77 01.


6/ MOTORRA

601. SALDU

Volkswagen Transporter sal- gai. Hornitua. 943 71 50 43. Gaeuz.

Opel Kadett 1.3

Xabier Zubizarretak (Aretxabaleta, 56 urte) laugarren legealdia du Arrasateko alkatetzan, horrez gain, batzarkidea da Gipuzkoako Batzar Nagusietan eta legebiltzarkidea Gasteizen, EHko ordezkari. Egora politikoaren inguruan eta bailarako hainbat konturen gainean berba egin dugu berarekin.



ENEKO AZKARATE

ENEKO AZKARATE

Legebiltzarrerako hauteskundeak aurreratu egingo dituela aipatu berri du lehendakariak. Aurten egitearen aldekoa zara?

Une honetan, Gasteizko parlamenturako hauteskundeak deitzea baino askoz ere bide emankorragoak egon daitezke; esaterako, alderdi abertzaleen arteko akordio marko berri bat bilatzen saiatzea. Hauteskundeak deitzekotan, irabazpiderik badagoela ziurtatu eta gero deitu beharko lituzke Ibarretzek. Egungo egoera hobetzeko aukera gutxi dagoenez, uste dut ez daukala zentzu handiegirik hauteskundeak aurreratzea. Lizarra-Garazik oinarriak jarri zituen eta orduan emandako urratsak ez dauka atzera bueltarik.

ETAren erasoak zirrikiturik uzten du abertzaleen arteko elkarlana lantzeko?

ETAk su-etena hautsi izana aitzakia moduan erabiltzen dute EAJk eta EAK. ETAk zerbait gaiztoa egiten duela, nik egin behar dudana ez egitea, ez da bidezkoa, inondik inora, eta hori da EAJ eta EAKo agintarien jarrera.

Baina, eroangarria izango litzateke EAJ, EA eta EHren arteko elkarlana ETAren erasoarekin?

Zergatik ez? Beste kontu bat da Madrildik edo Paristik sor daitekeen presioa. Dena dela, uste dut ETAk berak argi utzi duela abertzaleen artean akordiorik egongo balitz, bertan behera utziko lukeela ekin-tza armatua. Denek onartzen dute abertzaleen arteko akordioa behar dela, mese-degarri izango litzatekeelako Euskal Herriarendako. Orduan, akordio hori lortzea ezin dut baldintzatu beste norbaitek egiten duenaren arabera. Beste gauza bat da akordio horrek zer ondorio ekar ditzakeen: alderdi espainol eta frantsesen eta komunikabideen presioa eta abar. Baina, Euskal Herriaren subiranotasunerako bidea eraiki nahi badugu, egoera horri aurre egin beharko diogu, pentsatuz egoera berria hobea izango dela.

Alderdi abertzaleen arteko elkarlanari aurten berriro ere eustea posible izango litzateke?

Orain, une kritiko baten gaude eta horrelakoak gertaera garrantzitsuen ataria izaten dira. Bestetik, baikorrak izateko obligazioa daukagu. Eta gero, badago beste kontu bat, hots, euskaldunok ez daukagula beste biderik eta ezinbestean landu behar dugula abertzaleen arteko elkarlana. Gaur egungo egitura autonomikoa kontrolatzen duten alderdiek, hau da, EAJ eta EAK, dituzte zailtasun handienak urrats hori emateko. Ezker abertzaleak borondate zuzen eta argiena erakutsi du, ahalegin bat egiteko egoera zein den aztertu eta interes orokorren defentsan urratsak emateko.

Askoren ustea da ezker abertzaleak ez diola etekin politikorik ateratzen daukan indarrari. Horrela da?

Xabier Zubizarreta

ARRASATEKO ALKATEA

“Lizarra-Garazik oinarriak jarri zituen. Emandako urratsak ez dauka atzera bueltarik”

BATASUNA PROZESUA

“Batasuna prozesua emankorra da, baina onartu behar da ez zaigula atera guk nahi genuen bezain ondo”

DEBAGOIENA

“Eskualdeak erakunde propioa behar du, eskumenak eta herriak hautatutako ordezkari izango lukeena, baina hori ez da gaur egun daukagun mankomunitatea”

EHk beti izan du udaletan eta aldundietan parte hartzeko eta gobernatzeko bokazioa. HB zerbaitetarako jaio bada, bereziki, erakundeetan lan egiteko izan da. Gasteizko gobernuan esku hartzeak, ostera, gure estrategia politikoaren aurkako jokia egitea ekarriko luke. Uste dugu gaur egungo egitura autonomikoa gainditu behar dela, euskal egitura nazional baten mesedetan. Planteamendu honi erantzuten saiatu gara beti, eta gure parte hartzea horregatik izan da hain kritikoa Gasteizko legebiltzarrean. Hala ere, ikusten dugu

eguneroko kontuei erantzun behar zaiela. Hortaz, oreka askoz ere hurbilago dago guk egiten dugunetik alderdi autonomistek egin dutenetik baino.

Baina, jarraitzaileen aldetik etsipena ez duzu igarri EHk azken hilabeteotan hartutako bidea dela eta?

Etsipena hartzen da orain dela bi urte geneukan itxaropena errealtate ez bihurtu izanagatik, baina hori ez da alderdi bakkarraren errua, denona baizik. EHk Gasteizko parlamentuan parte hartzeagatik ez da gatazka konponduko.

Hurrengo hauteskundeetan EH erabakigarria izango da lehendakaria aukeratzeko. Zer egingo du EHk?

Eragin handia izan dezakeen erabakia da eta ondo aztertu beharko dugu estrategia. Gaur egun, Gasteizko eta Nafarroako parlamentu eta gobernuek herritarren interes asko mugitzen dituzte eta erakunde horiek alderdi batzuen edo beste kontrolpean egoteak baldintzatzen du herritarren egoera. Dena dela, aztertu beharko genuke egitura horiek alderdi abertzaleen eskuetan egon behar badira, zertarako erabili behar diren.

Batasuna prozesuan murgilduta dago ezker abertzalea. Zuk zeuk zein ildotan kokatzen duzu zeure burua?

Bateginez ponentzian parte hartu dut, egokiena dela uste dut-eta. *Batasuna* prozesua su-etan garaian hasi zen. Egoera hori aprobetxatuz, prozesua hasi eta garatzea pentsatu genuen. Zoritxarrez, egoera gaiztotu egin da eta prozesuaren garapenerako zailtasunak aurkitzen ari da. Hala ere, emankorra da, gure artean iritzi ezberdinak plazaratzen ari direlako, baina onartu behar da ez zaigula atera guk uste edo nahi genuen bezain ondo. Gizarteko sektore berriak geureganatzeko baldintzak eta oinarriak jarriko ditu prozesu honek eta, alde horretatik, positiboa da.

Paco Garcia Mondragoeko zinegotzi sozialistaren autoaren erreketak salatzen du, EH bakarrik geratu zen. Zer deritzozu?

Eztabaidan EH irabazle atera zela uste dut. Bozketa ez zen batere logikoa izan. Nire ustez, EAJk eta EAK ez zuten mozioa onartu behar, ez Paco Garciari elkartasuna ez adieraztearren edo ekimen armatuen kontra egoteagatik, baizik eta abertzaleen kontra pentsatutako mozioa zelako, hain zuzen ere, abertzaletasuna faxismoarekin parekatzen zuelako. Guk Paco Garciari elkartasuna adierazi genion.

Ekologistak kezkatu agertu dira Garaia proiektuak ingurumenari egingo ei dion kaltea dela eta.

Garaia proiektua ekologiaren ikuspegitik ez da oso erasokorra ingurumenarendako, nahiz eta onartu eraikuntza berriak egiteak beti eragiten diola ingurumenari. Uste dut askoz ere garrantzitsuagoa dela pentsatzea zelako onura sozio-ekonomikoak ekarriko dizkion Garaia proiektuak gure herriari. Unibertsitatea eta ikerkuntza zentroak Mondragoan garatzea ona da, baina, era berean, erronka edo aukera bat ere bai, azpiegitura egokiak eskatzen dituelako eta erronka horiei erantzun behar zaielako.

Gaur egun, bailararen zentzua orain dela urte batzuk baino barneratuagoa daukagu. Ondorioz, mankomunitateak behar horiei erantzuteko ahalmen handiagoa izan beharko luke?

Euskaldunok, beste gauza batzuen gainetik, garen herrikoak sentitzen gara. Errealitate horren gainetik, eskualdea, herrialdea edo nazioa daude. Baina, garraibideak garatu diren neurrian, joan-etorrirako pertsonen gaitasuna geroago eta handiagoa da. Errealitate garbia da, herrien artean sortzen ari diren harremanak geroago eta sendoagoak direla. Eta horrek garapen pareko bat izan beharko luke erakundeetan.

Gaur egun, ez daukagu herri edo nazio batek izan beharko litzuzkeen moduko erakunderik. Goian konpondu gabeko egoera daukagu eta, bestalde, eskualdeari legokiokeen egitura ez daukagu garatuta, euskaldunoi gustatuko litzazigukeen ikuspegitik eginda. Eskualdeak erakunde propioa behar du, eskumenak eta herriak hautatutako ordezkari izango lukeena, baina hori ez da gaur egun daukagun mankomunitatea.

Podiuma

Maria Jose Gil | LASTERKARI BETERANOA |

Arrasateko Atletismo taldekoa, 41 urte zituela hasi zen lasterka egiten, eta gaur egun, 60 urterekin, onenen artean dugu beteranoen mailan. Gipuzkoako kros txapelketan 6. geratu zen eta domekan San Antonen, Bergaran, jokatuak proban bigarren izan zen.

Zer moduz San Antonen krosean?

Gure kategorian ez zegoen partaide askorik, baina gustura geratu nintzen egindako denborarekin eta proba ondo bukatzearekin, lasterketa gogorra zen eta. Oso aldapa zaila zeukan ibilbideak.

Atletismoan berandu hasi zinen...

Bai, berrogei urte bete nituela. Ebakuntza baten ondorioz, medikuak gomendatuta, lasterka egiten hasi nintzen, poliki-poliki. Senarrak ere *footing* egiten zuen ordurako, eta berehala gustua hartu nion lasterka egiteari. Gogoratzen naiz Urkulura buelta emateko (zazpi kilometro inguru) 49 minutu behar izan nituela aurreneko aldian; eta azkenengo aldiz, lehiaketan, 29 minutuan egin nuen. 1992an lehiatu nintzen lehen aldiz, Erandion, eta beteranoen mailan hirugarren geratu nintzen.

Ez zara damutzen atletismoan lehenago ez hasteaz?

Ez dakit zer egingo nukeen gaztetan hasiz gero, baina lasterka egiteko gaitasunak ditudala esan didate behin baino gehiagotan. Kontua da gustura nabilela eta jarraitzeko asmoa daukadala.

Zein distantzian



Maria Jose Gil beteranoa Arrasateko atletismo taldean ari da.

“Bost maratoni egin ditut eta 1993an urrezko domina irabazi nuen Donostian jokatu zen Munduko Kopan”

“Behobia-Donostia lasterketa izugarri gustatzen zait, distantziarengatik eta partaideen artean egoten den giroarengatik”

aritzen zara gusturago?

Fondoa egitea gustatzen zait. Maratoni erdian ere ondo moldatzen naiz: 1998an Espainiako txapel-dun izan nintzen, Zaldibarraren. Pistan ere ibilitakoa naiz: 1998an txapel-dun izan nintzen Sevillan 5.000 metroetan; handik urtebetera, 5.000 eta 1.500 metroetako probak irabazi nituen Bartzelonan, eta joan den

urtean, Talavera de la Reina, 1.500 metroetako proba irabazi nuen eta 5.000 metroetakoan bigarren izan nintzen. Joan den maiatzean Valladoliden jokatu zen Munduko Kopan bosgarren izan nintzen.

Maratoni ere marka onak egin dituzu.

Bost maratoni egin ditut eta 1993an, Munduko Kopan Donostian izan zenean,

urrezko domina irabazi nuen, hiru ordu eta 40 minutuko denbora eginez. Nire lehenbiziko maratoni zen eta bukatzea nahikoa nuen, baina beteranoen artean irabazi nuen. Ni, beti, lasterketa bukatzeko asmoarekin irteten naiz eta hori da inportanteena, helmugara ondo ailegatzea, alegia. Ez dut dena emanda lasterka egin, baina, bestalde, lasterketa mordoan parte hartu dudan arren, ez naiz inoiz erretiratu.

Maratoni uztea erabaki duzu.

Bai, 1997an egin nuen azkena. Maratoni prestatzeak denbora luzea eskatzen du eta oso gogorra da. Azken maratoni egin aurretik, 700 bat kilometro egin nituen entrenamenduetan. Bizkarrean arazoak izaten ditut eta distantzia laburragoko lasterketak prestatzea nahiago dut: krosa, pista, etab.

Toki askotan ibilitakoa zara. Zein da zure probarik gustukoena?

Behobia-Donostia lasterketa izugarri gustatzen zait, distantziarengatik eta partaideen artean egoten den giroarengatik. 1992tik hona ez dut hutsik egin. Lehenbizikoan hirugarren izan nintzen eta hirugarren alditik 1999. urtera arte lehenengoa izan naiz nire mailan. Iaz laugarren izan nintzen.

Astean zenbat aldiz entrenatzen zara?

Astebukaeran lehiaketarik badut, martitzen, eguazten eta eguenean entrenatzen naiz.

Euskadiko kros txapelketan izango zara?

Bai. Ea bukatzen dudan. Azkoitian oso zirkuitu zaila jarri ziguten.

EDU MENDIBIL

ATZOKO TXAPELDUNAK

Iñazio Kortabarria Futbolaria



Erretiratu aurreko urteetako argazkian, 80ko hamarkadan.

Hamalau denboraldi eman zituen Realean,

bi liga txapelketa irabaziz. Gaur egun

Realeko kadete taldeko entrenatzailea da


Mondragoen jokatzeko ari zela, 17 urte zituela fitxatu zuen Kortabarria Realak. Sanse taldean, Xabier Expositoren aginduetara, hiru denboraldi eman ondoren, 1971n egin zuen estreinaldia Realekin, Coruhan (1-0). Seguroa zen orduan txuri-urdinen entrenatzailea, eta 1985ean erretiratu bitartean, Andoni Elizondo, Rafa Iriondo, Jose Antonio Irulegi eta Alberto Ormaetxea izan zituen entrenatzaileak. Realekin 425 partiduko jokatu zituen eta Iñazio diego moduan, “zorteak izan nuen, urterik onenak tokatu zitzaizkidalako. 1979-80 denboraldian 32 partiduko gaitzeke eman zuen taldeak, baina azkenarekin Sevillan galdu ondoren, bigarren postuarekin konformatu behar izan ginen”. Hurrengo denboraldian Realak liga irabazi zuen, Gijonen, azken minutuan Zamorak partidua bina berdindu ondoren. Donostiaren aurreko gola Kortabarriak egin zuen, penaltiaz. “Lehen liga irabazi ondoren, Arantzazutik Donostiara bitarteko bidaia ahazteazina da, jendeak sekulako harrera egin zigun eta”. Europako Kopan finalerdietara iritsi zen taldea 82-83 denboraldian, baina Hanburgo taldearen aurka galdu zuten.

Atzelaria zen eta 6 zerbakiarekin jokatu zuen. Aurrean izan zituen jokalarien artean Cruyff nabarmentzen du. Euskadirekin hiru partiduko jokatu zituen eta Espainiarekin, bost. Hala ere, berak argitzen duen moduan: “Elastiko bakarria izan dut”.

Realak gorantz egingo duelakoan dago. “Hemengo jokalariek izan behar dira oinarria eta kanpotik datozenek argi izan behar dute nora datozen. Azkenik, probintziako taldeek egiten duten lana goraitatu nahi dut”. / E. M.

“Gijonen lehen liga irabazi ondoren, Arantzazutik Donostiara bitarteko bidaia ahazteazina da. Jendeak sekulako harrera egin zigun”

Iñazio Kortabarria • Arrasate • 1950



Nire Pronostikoa

MARTIN GARAI / Aretxabaletako Zaria mendi taldeko presidentea

Pilotan, Titin eta Zezeaga indartsu ikusten ditut finalerdietarako bidean. Ez dut uste arazorik izango dutenik Olaizola II.a eta Berna mendean hartzeko. Etxanizek eta Lasak osatzen duten bikoteak ez du partidurik irabazi, baina aukera ona daukate astebukaeran,

Capellan eta Elkororen aurka. Futbolekin, Realak azkenetarikoa aukera izango du Santanderren, zulutik irteten hasteko. Txuri-urdinek erraz irabaziko dutela uste dut. Athleticek, ostera, partidua zaila izango du galiziarren aurka eta aurreko urteko txapel-dunak gailendu egin daitezke San Mamesen.

Astebukaera honetako partidukoak

A/	Etxaniz-Lasa III.a	22	Capellan-Elkoro	16
B/	Titin III.a-Zezeaga	22	Olaizola II Berna	10
C/	Racing	0	Reala	3
D/	Athletic	1	Deportivo	3

Munduan zehar dokumentalak grabatzen

Udaberri aldera Euskal Telebistak emitituko duen dokumental sorta bat lantzen ari dira Alberto Iñurrategi eta Asier Aranguren atxabaltarrak eta Jon Lazkano bergararra. Nepalen, Pakistanen eta Pata-

gonian izan ondoren, joan zen urteko azaro eta abendu bitartean Afrikan izan ziren, Malin hain zuzen, Bamako hiriburutik 1.000 bat kilometrora dagoen Fatimaren Eskua izeneko dorreak eskalatzen. Euren

hitzetan, esperientzia guztiz aberasgarria izan da eta liluraturik bueltatu dira Afrikako lurraldeetatik. Otsailean, berriz, Alpeetan grabatuko dute dokumental sortaren azken atala.


Alberto Iñurrategi eta Jon Lazkano mendizaleak eta Asier Aranguren kazetaria Malin izan ziren joan zen urteko bukaeran. 1999ko abenduan abian jarritako proiektuari jarraituz, ia hilabete batez Afrikan izan dira, EITBk ekoiztutako dokumental sorta baterako irudiak grabatzen.

Alberto Iñurrategi eta Jon Lazkano Fatimaren Eskua deritzon parajearen egon dira eskalatzen. Euren batera Gotzon Arribas kameraria ere izan da. Mauritania eta Aljeria hegoaldean dago Mali, Sahara basamortuaren bukaeran.

Fatimaren Eskua esku bateko hatzen forma duten haitzezko dorreak dira, 300-700 metro bitartekoak, eta Lazkanok eta Iñurrategik Suritondo eta Kagatondo izenekoak eskalatu dituzte. Alberto Iñurrategiren hitzetan, "bi dorre horiek aukeratu genituen erakusgarriena zirelako. Eskalada aldetik ez ziren oso nekezak eta aurretik irekitako bideetatik egin dugu eskalada. Lehentasuna eman diogu irudi politak grabatzeari, dokumental baterako zirela kontuan hartuz".

Esan bezala, eskalada aitzakiaz hartuz, ikusleei Mali ezagutzera ematea da dokumentalaren helburu nagusia. Eskalatzen 10 bat egun eman zituzten, eta gainerako egunak Maliko beste hainbat toki ezagutzeko aprobetxatu zituzten. Asier Arangurenek dioenez, "Mali oso herrialde ederra da eta, adibidez, Himalayarekin alderatuz, sekulako kontrastea dauka. Alde horretatik oso erakargarria egin zaigu. Jonek lehendik ere ezagutzen zuen baina guretako berria zen eta konprobatu ahal izan dugu dokumental bat egiteko osagarri asko zituela: Afrika beltza zen, lur beroa, haitzean egindako eskalada, arraza eta kultura ezberdinak...".

Besteak beste, Tonbuktu, Mopti, Djenne eta Dogoi herrial-



EDU MENDIBIL

Jon Lazkano

BERGARA/MENDIZALEA

1969an jaioa, bergararra. Txikitatik mendirako zaletasuna erakutsi zuen. Hainbat espedizio egin ditu azken urteotan: Himalayara, Patagoniara, Yosemiteara, Tadjikistanera... TVEko *Al filo de lo imposible* saiorako lanean ibili da 1990etik 1999ra arte. Tartean Amin Brakkeko eskalada ahalegina egin zuen Jose Carlos Tamayo eta Adolfo Madina-beitiarekin batera, eta Gasherbrum IVrako espedizioan ere izan zen. Banoa agentziarako trekkingak eta bidaiak egiten ditu.

Asier Aranguren

ARETXABAETA/KAZETARIA

Telebistako aurpegi ezaguna, Aretxabaetan jaio zen orain dela 35 urte. 1990etik Euskal Telebistan ari da lanean, kiroleko erredakzioan. Aurretik, 1989-90 ikasturtean, irratitelebistako masterra egin zuen Boston University-n. Informazio Zientzietan doktorea da. *Kirolez kirol* saioko aurkezle eta zuzendaria izan da hainbat urtean. Orain egiten ari diren dokumental sorta honetan kazetari eta errealizadore lanak egiten ditu. Gaur egun, Elorrión bizi da.

Alberto Iñurrategi

ARETXABAETA/MENDIZALEA

Munduan diren 14 zortzimi-mlakoetatik 12 egin ditu, denak ere anaia Felix zenarekin batera. Annapurna eta Gasherbrum Ieko tontorretara iristea falta zaió bakarrik. Atxabaltarra (32 urte), Euskal Herriak eman duen mendizalerik bikainenetakoa dugu. Joan zen uztailean, Gasherbrum IItik jaisten ari zirela, Felix anaia hil zen. Biek TVEko *Al filo de imposible* saiorako bizpahiru teleaio egin zituzten eta *Gure Himalaya* liburua kaleratu zuten, arrakasta handiz.

deen berri emango digute dokumental horietan. Jon Lazkanok adierazi digunez, "Mali musulmana bada, Dogoi herrialdekoak animistak dira, guztiz bereizten dira besteengandik eta naturarekin harremana duen erlijioa praktikatzen dute. Horrelako gauzak ere islatu nahi izan ditugu dokumentalean. Djenne, berriz, adobe egingako mezkitarik handiena dago, eta benetan ikusgarria da. Azken baten, ikusleei bidaia bat egiteko aukera eman nahi diegu egiten ari garen dokumental sorta honekin, mendiak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatuz". Esan bezala, Jon aurretik egonda zegoen Malin; "Gure Land-Roverra erametak askatasun handia eman digu, eta hango jendearekin ondo moldatu gara. Dena dela, distantzia moduko bat dago gu eta euren artean, zuriak garelako, aberatsak, euren ikuspuntutik. Mali oso herrialde pobrea da. Bestalde, nahiz eta musulmanak izan, erlijioarekin ez dira hain zorrotzak. Baina, han geundela Ramadana egiten ari ziren eta gogorra egiten da".

Andoni Egaña bertsoaria da dokumental hauen gidotegilea. Hasiera baten zazpi saio eskainiko dituzte: Manasluren eta Annapurnaren ingurukoak, Pakistanen, G-Ien eta G-IIen grabatutakoak, Patagonian egintakoak, Maliko eta, bukatzeko, otsailean Alpeetan, Chamonixen, grabatuko dutena. Ordu erdiko saioak izango dira eta ziurrenik udaberriaren hasiko dira emisioak. Asier Arangurenaren arabera, "egon garen leku guztiak izugarri ederrak dira". Patagonian egon zirenean, eguraldiarekin zorte txarra izan zuten eta Albertok pena du nahi beste eskalatze-ko aukerarik izan ez zutelako. "Eguraldia bermatuta, bihar bertan itzuliko nintzateke Patagoniara".

EDU MENDIBIL



Afrika beltzean izan dira Aranguren, Iñurrategi eta Lazkano. Argazkietan, Maliko gizon bat, Asier Aranguren kamerarekin eta espedizio Land-Roverra.

ASIER ARANGUREN

Telebista
ugari
dago mundu zabalean,
baina
bailarakoa,
bakarra.

The logo for Goitb (Goiena Telebista) features a stylized 'G' on the left, composed of a dark blue upper curve and a green lower curve. To the right of the 'G', the letters 'oitb' are written in a bold, sans-serif font. 'oi' is dark blue, 't' is red, and 'b' is red. Below the logo, the text 'Goiena Telebista' is written in a dark blue, sans-serif font.

Goitb
Goiena Telebista

Goienka 2a

Egubakoitza / 2001eko urtarrilaren 26a

Kultura
eta
Aisialdia



Urtarrilaren 26tik
otsailaren 2ra

Herrietako Zine Klubak



Herriz herriko zinema eskaintza

Globo sariak dagoeneko banatu dituzte, eta Oscar-irak zeintzuek irabaziko dituzten jakiteko kinielak egiten ere hasi dira zinemazale batzuk. Baina, guk beste zinemazale batzuk aukeratu ditugu aste honetan. Zinemaz jakin badakite, eta zinema gustuko dutelako, filmak eskaintzeko aukera egin dute. Ez da zinema komertzialaren eskaintza, astebarruan egiten den beste eskaintza hori balizik.

Oñatin, Bergaran eta Mondragoen egon badago eskaintza hori eta Aretxabaletan hastear daude. Bideoak zinemari lekua hartuko ziola esan zuten garai baten, baina aspaldian zinema aretoak gehituz doaz eta zinemara joatea ohitura bihurtzen hasi da. Baina, asteburuetako "zinemara joate hori" (merkataritza zentroan arratsaldea igaro, sekulako jaki morderoa erosi eta zinemara) baino gehiago da zine-kluba.

Zinema

Zine-klubaren eskaintza

Jatorrizko bertsioa pantailara

ZINE-KLUBA: ZINEMA IKUSTEKO BESTE MODU BAT. EGUENERO BAILARAKO ZINEMA ARETOETAN

Arrasate

"Publiko fidela daukagu"

1989. urtean 25 bete zituen Mondragoen zine-klubak. Gurea zineman hasi zen eta udalak Amaia antzokia erosi zuenean, han hasi ziren zinema eskaintza alternatiboa egiten. Baina, gain-behera etorri zen, zinemara joateko ohiturarekin batera. 1994an berriro heldu zitzaion zine-klubari eta martxoaren 3an *Entre el cielo y la tierra* filmak hasi zuen denboraldi berria. Jon Garaik, udal-tereko kultura teknikariak, dioenez, "ez dugu zinema ziklo konkreturik antolatzen, tarteka ez bada. Jeneralean, zinema komertzialetik kanpo gelditzen diren filmak ematen ditugu, eta askotan, banatzaileen eskaintza ere erabakigarria izaten da". Mondragoen nahiko publiko fidela dagoela dio Jonek, "batez beste, 70 bat lagun elkartzen dira Amaian. Jakina, film batzuek beste batzuek baino arrakasta handiago izaten dute. Iaz, esaterako, *Los amantes del círculo polar* filmak erakarri zuen jende gutxi, baina, agian, aurrenekoa izanak zerikusia izan zuen. Aldiz, *Hilari* film laburra izan zen ikusiena, baina hori ere eskaintza berezia izan zen: estreinaldia izan zen".

Aurten, otsailaren lehenean hasiko da zine-klubaren eskaintza. Horretarako, Wim Wenders zuzendariaren *Buena vista social club* fil-

ma aukeratu dute. Ohi bezala, eguenean izango da, 21:30ean, Amaia antzokian. Sarrera: 450 pezeta.


Bergara

"Aurten, martxoan hasiko gara"

Novedades zinema aretoko Narduradunak darama zine-kluba Bergaran, baina bada beste zinema eskaintza bat: Forum Cinematographe, hain zuzen. Orain dela bost urte hasi ziren, eguenean, bestela pantaila handian ikusi ezin daitezkeen filmak eskaintzen. Lagun talde bat hasi zen eta gaur egun bi anaik daramate: Antonio eta Luis Zabalak. Urtero, gai bat aukeratu eta bost filmez osatutako programazioa antolatzen dute. 50eko hamarkadako komedia amerikarrak eta zuzendari paregabeak izan dira horietako batzuk. Jatorrizko bertsioak dira guztiak eta bi anaiek Hitchcock gustuko duten arren, bestelako filmak ere eskaintzen dizkiote, dagoeneko, euren ohiko publikoa denari.

Martxoan hasiko dira eta *Con la muerte en los talones* Hitchcock zuzendari handiaren filma eskainiko digute: "Hori aukeratu dugu hasiteko, baina oraindik ez dugu programazioa osatu; hortaz, agian, aldatu ere egin daiteke".

Novedadesen, eguenean, 21:30ean. Sarrera: 400 pezeta.



Oñati

"Onenak aukeratzeko ditugu"

Urriari hasi zuten zine-klubaren eskaintza Oñatin. Eta eskaintzarik goztiarrena izatearekin batera,

zaharrenetarikoa dela ere onartu behar: 25 bat urte daramatzate bi lagunek filmak aukeratu eta urritik maiatzera bitartean. Eguenero Santanan programatzen. Zinema parrokialean hasi zen historia, baina hura itxi zenean, Oñatz taldeak filmak eskaintzeari utzi zion. Horrela, bi oñatiarrek ohitura hori eustea erabaki zuten eta, oraindik ere, zinema kritikak irakurri eta "onenak" aukeratzeko dituzte oña-

tiarrei eskaintzeko, film bakoitza ren sinopsiarekin batera.

Ziklorik ez dute egiten, lan handia delako; aurten, mendi, inoizko rumen eta emakumeen astearekin lotutako tituluren bat jarriko dute. Otsailaren lehenean *El viento no de Kikujiro* film japoniarra eskaintzeko dute: Santana zinema aretoan, eguenean, 20:00etan. Sarrera: 550 pezeta.

Aretxabaleta

"Lehenbailehen hasi nahi dugu"

Aretxabaletan garai baten horretan beste arrakasta zuen zine-klubak itxita dago, konponketa lanak zuzentzeko. Hala ere, bada gazte talde bat zine-kluba bultzatzeko gogoz. Oraindik ez dute tokirik ez eta programaziorik ere. Baina, lehenbailehen hasi nahi dute eta horretarako *El Odio* filma aukeratu dute. "Zinema zikloak antolatu nahi ditugu: westernak, beldurrezkoak, antzekoak; baina, bestelakoak ere eskaintzarik ere egingo dituzte zuzendari jakin baten ingurukoak esaterako: John Ford, Alfred Hitchcock, Sergio Leone,..."

Hala ere, Josu Atxagak, Josu Txintxurretak eta euren lagunak dute zinema formatua aukeratzeko. "Bideo formatuan lan egingo dugu bestelakoetan sartzea ezinezko izateaz gain, oso garestia delako."

MARIJO DEOGRACIAS

Erakusketa

Japoniako zigiluak

Japoniako zigiluak Eskoriatzan

HOGETA HAMAR URTEAN ARGITARATUTAKO ZIGILUAK BILDU DITU JUSTO SEGURAK

Joan den eguaztenean erakusketa bitxi bat ireki zuten Eskoriatzako Museo Eskolan: Japoniako zigiluen bilduma, hain zuzen ere. Hogeita hamar urtean argitaratutako zigiluak bildu ditu Justo Segura abadeak. Eskoriatzarako hau orain dela 38 urte Japonia aldeira joan zen misiolari, eta ordutik hona egin duen bilduma bi astean egongo da Museo Eskolan.

BIDEO EMANALDIAK

Kulturak batzen gaitu izenburua aukeratu dute antolatzaileek. Izan ere, Justo Segurak Japoniara joateko erabaki zuenean, "beste kultura batzuk ezagutu eta bere herrian ezagutzera ematea" zuen helburu. Baina, elkar ezagutze horrek bi alde izan behar dituen, misiolari horren lagunek euskaldunen gainean duten ikuspuntua islatu dute,

hainbat bideoren bitartez. Eta dokumentu horiek Museo Eskolan ikusi ahal izango dira erakusketa zabalik dagoen artean.

Ordutegia honakoa izango da: martitzenetik egubakoitzera, 17:00etatik aurrera, eta zapatu eta domeketan, 12:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

SAIOA OJANGUREN



Eskoriatzako alkateak plaka oroigarria eman zion Justo Segurari.

Hitzaldiak

Euskal Txokoaren inaugurazioa Eskoriatzan


Nire aukera

Egoitza berria euskaltzaleendako

Gaur, egubakoitza, Eskoriatzako Euskal Txokoa inauguratuko da. Intxaurtxueta auzoan udalak zituen lokal batzuetan dago Euskal Txokoa eta hantxe Leintz Udak Euskaltegiarendako eta Axtroki Kultura Elkartearendako egoitzak egokitu dira.


Leintz Udak Euskaltegiaren jarduerak Aretxabaleta eta Eskoriatzaren bitartean garatzen da eta Eskoriatzaren eskolak emateko lokal berri eta egoki baten beharrez zegoen. "Jose Arana lehengo ikastola zaharreko geletan ematen zituzten eskolak, baina oso kaskar eta deseroso zeudenez, azken urteotan Aretxabaletan bakarrik eman dituzte. Arazo horri irtenbidea emateko, udal euskaltegiarendako toki egokia topatu dugula uste dut", esan digu Eskoriatzako Udaleko Euskara azpibatzerdeko zinegotzi-arduradun Maider Otamendik.

Bestalde, Axtroki Kultura Elkartek ere lokal berri baten beharra zuen bere jarduerak aurrera eramateko, besteak beste, *Ze Barri?* aldizkaria argitaratzeko. Eskoriatzaren eta Leintz Gatzagan banatzen den aldizkaria San Pedro kaleko 9. zenbakiko etxabe batean egin izan da orain arte. Aurrerantzean, hortaz, Euskal Txokoan izango duzue *Ze Barri?* aldizkariako arduradun eta *Goienkariako* berriemaile Iñigo Biain. Axtrokiren lokal berrian egingo du lan. Maider Otamendik esan digunez, "udalak bere jabegoko lokal batzuk egokitu eta hasiera baten bi erakunde hauei, alegia, Axtrokiri eta Leintz Udak Euskaltegiari, uztea erabaki du, horrela, herriaren euskararen alde lan egiten duten taldeei eta etorkizuneari sor daitezkeen



Alberto Elortza

Onatiko Zelai Zabal jatetxeko sukaldaria
"Euskal sukaldaritza eta euskal sukaldariak komunikabideetan"
 Astelehena, hilak 29
 19:00etan



Juan Martin Elexpuru

Idazlea
"Badihardugu herriko euskara indartzen"
 Martitzena, hilak 30
 19:00etan



Mikel Irizar

Goiena Kooperatibaren zuzendari nagusia
"Goiena: eskualdeko multimedia"
 Eguena, hilak 1
 19:00etan

taldeei toki bat eskainiz eta guztiak batera egoteko aukera emanez".

13,5 MILIOI PEZETAKO AURREKONTUA
 Euskal Txokoaren egokitzapen lanek sei bat hilabete iraun dute eta aurrekontua 13,5 milioi pezetakoa izan da. Euskal Txokoak lau gela, bi trasteleku txiki eta komunenak izango ditu. Udak euskaltegiak gela handi bat erabiliko du eskolak emateko eta beste bi gela txiki izango ditu, horietako bat, bulegoetarako. Axtroki

elkartek, berriz, gela handi bat izango du: batetik, elkartearen jardueretarako eta, bestetik, *Ze Barri?* aldizkariako erredakzio eta *Goienkaria* astekariko ordezkaritza izango dena.

Gaurtik aurrera, beraz, Eskoriatzaren euskararen alde lan egiten duten taldeek badute batzeko tokia: Intxaurtxueta auzoan zabalduko den Euskal Txokoa.

INAUGURAZIOA ETA HITZALDIAK
 Inaugurazioa gaur, egubakoitza, egingo da, 19:00etan. Ekitaldian

Edorta Zubizarreta alkateak, Karmele Agirregabiria Leintz Udak Euskaltegi zuzendariak eta Andoni Bengoa Axtroki Kultura Elkarteko lehendakariak hartuko dute parte.

Eta inaugurazioaren inguruan, hainbat hitzaldi antolatu dira hurrengo asterako, Euskal Txokoa herritar guztie ezagutzera emateko asmoarekin. Hiru hitzaldiok Euskal Txokoan izango dira astelehen, martitzen eta eguaztenez, arratsaldeko 7etatik aurrera.

ENEKO AZKARATE

Karlos Agirreurreta RIPeko abeslaria

Nire inguruan izan ditudan disko guztien artean, bat aukeratzeko, Slade talde britainiarraren *Slayed?* aukeratu nuke.

Eragin handia izan du niregan talde honek, 60ko hamarkadako kantautoreek izan zuten antzerakoa. Kantautore horien bertso eta gitarra klasikoak entzun ostean, soinu hori elektrifikatuta entzuteak aldaketa erradikala eragin zuen.

Ile luze, takoi eta kanpai-praken garaia zen eta disko horri milaka buelta eman nizkion maleta erako tokata baten, ahal nuen bolumen altuenean. Horrexegatik guztiagatik, nire aukera Slade taldearen *Slayed?*



'SLAYED?' Slade



IBAN ARANTZABAL

Kaleratu berriak

Iban Arantzabal

LIBURUA | Eleberria




ROCK 'N' ROLL
 Angeru Epaltza
 Elkarlanean argitaletxea
 404 orrialde

1999ko udako pare bat astean Iruñea izan litekeen hiri baten gertatzen den istorio beltza: atsoen gorpu desagertuak, kazetari gogogabetu baten ikerketak, susmo ugari eta argitasunik ez, hilketak eta hilketa saioak...

Ezohiko izena musikari bakar bat ere ageri ez den nobela batendako. Baina, zergatik *Rock'n'Roll*? Ba, pertsonaia guztiendako sinboloa delako, gaztetako errebeldiaren eta oraindik lotzen dituen solidaritatearen ikurra; hala uste du, behintzat, protagonista nagusiak.

LIBURUA | Eleberria



JEANS-AK HOZKAILUAN
 Patxi Zubizarreta
 Alberdania
 329 orrialde

Euskadi saria irabazi zuen Gizon izandako mutila liburuarekin ezagutu genuen askok Patxi Zubizarreta. Haur literaturan egindako saioez gain, *Gabrielle* nobela edo *Bihotzerre* ipuin bilduma ere aipatzekoak dira, baina oraingoan *Rod movie* bat baino gehiago den eleberri batekin dator Zubizarreta. Bidaia antolatuta baten batera joandako hamalau pertsona izandako hartu-emanak kontatzen dira. Gauzak urrunetik ikusteko beharrezkin egiten da bidaia furgoneta baten.

BIDEOA | Umeendako



ZATOZ JOLASTERA
 hh: hik hasi
 2.500 pezeta

Bideo honetan agertzen diren jolas eta kantuak *Haur-jolasen abestiak I eta II* musika-zinta eta CDetan aurkituko dituzu. Takolo, Pirritx eta Porrotxen gidaritzapean, abenturaz beteriko 22 jolas daude. Jolas egiteko Euskal Herrian famatu diren lagunak: Egaña eta Maialen Lujanbio, Txan magoa, Saralegi harri jasotzailea, Tapia eta Leturia, Julen Guerrero, Erramun Martikorena, Olaizola anaiak... Kontua da umeei, baloiarekin jolasteaz gain, beste zenbait jolas interesgarri daudela jakinaraztea.

Urtarrila: 26-2

Edu Mendibil | Zuon ekitaldien berri emateko bidali informazioa eguazteneko 12:00ak baino lehenago • Posta-e: goienkaria@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxe: 943 76 29 77

Antzerkia

ARRASATE

> **Txalo** taldearen *El hombre que confundió a su mujer con un sombrero* antzezlanaren datorren domekan, hilak 4, Amaia antzokian, 19:30ean.

ELORRIO

> **Faemino y Cansadoren** *Visto o no visto* antzezlanaren zapatuan, hilak 27, Elorrioko Arriola aretoan, 22:30ean.

> **Taupada** taldearen *Printze txikia* umeendako antzerkia domekan, hilak 28, Arriola aretoan, 17:00etan.

Musika

BERGARA

> **Udal Musika Bandaren** kontzertua domekan, hilak 28, Udal Pilotalekuan, 12:30ean.

Erakusketak

ARRASATE

> **Gurutze Mujika** margolari atxalbaltarraren erakusketa Harresi aretoan, otsailaren 4a arte.

> **Jose Zufiaurre** margolari bizkaitarraren lanak Toki-Eder kafetegian.

> **Gizakien lurra** gobernu kanpoko erakundeak, Medicus Mundirekin batera, argazki erakusketa antolatu du Kultura Etxean.

> **Iñaki Bruñaren** margolariaren eta eskultorea erakusketa Udalako Larrinetxe jatetxean, martxo bitartean.

BERGARA

> **Ane Garces** eta **Gorka Elórtzaren** olioak eta lumatxoak Nahikarin.

ESKORIATZA

> **Kulturak batzen gaitu** izenburuko erakusketa Museo Eskolan.

Lehiaketak

ARRASATE

> **Arrasateko Emakumeen Kontseiluaren** irudia aukeratzeko lehiaketa. Sari nagusia 100.000 pezetakoa izango da. Mondragoetar batek aurkeztutako lan onenarendako 25.000 pezetako akzesita egongo da. Lanak aurkezteko epea urtarrilaren 31n bukatuko da. Argibideak Arrasateko Udaleko Emakume Sailean, 943 79 09 00 eta 943 79 41 39 telefonoetan.

> **XIV. Arrasate lehiaketak:** ipuina, poesia, bertsopaperak, komikia, euskalki grabazioa eta irati-

erreportajea. Mugaeguna: otsailaren 5a. Argibideak 943 77 12 28 zenbakian.

> **III. Arte Plastiko lehiaketa** deitu du Arrasateko Gure-Leku tabernak. 125.000 pezetako saria emango da. Lanak otsailaren 28a baino lehenago bidali beharko dira ondoko helbidera: Gure-Leku taberna. Zarugáide, 17-behea. 20500. Arrasate.

PORTUGALETE

> **XV. Komiki lehiaketa.** Nahi duten guztiek, inolako mugarik gabe, har dezakete parte, banaka nahiz taldeka, hau da, gidolariak eta marrazkigileak batera dihardutela. Gaia libre izango da eta pertsonaia originalak izan beharko dira. Bi kategoria bereiztuko dira, zuri-beltza eta kolorekoa; errotxuak euskaraz nahiz gaztelaniaz idatz daitezke. Lanak aurkezteko epea urtarrilaren 31n amaituko da. Argibide gehiago Portugaleteko Udaleko Kultura Sailean, 94 472 92 20 zenbakian.



Ikastaroak

ARETXABALETE

> **Areto dantzen ikastaroa,** Loramendi euskara elkarteak eta Tril emakumez taldeak antolatuta. Egubakoitzetan izango da, 19:00etatik 20:30era. Irakaslea Natalio Maiztegi izango da. Izen-ematea eta argibideak Loramendi elkartearen edo 943 77 09 70 telefonoan.

ARRASATE

> **Masaje bateratua** ikastaroa antolatu du Arrasate Yoga Elkarteak, urtarrilaren 27tik aurrera. Zapatuetan, 17:00etatik 20:00etara. Argibideak 943 79 35 76 zenbakian.

ELGETA

> **Jantzizintza** ikastaroa Anezkan, Espoioian, astelehen eta eguazten arratsaldeetan. Eguazten ikastaro bat izango da: **Makina bidez bordatzeko** ikastaroa, hain zuzen. Eskolak, egunero, bi ordukoak izango dira. Argibideak 943 76 59 25 telefonoan.

ELGETA

> **Aerobikeko monitore ikastaroa,** titulu ofiziala eta homologatua jaso nahi dutenentzako, Debagoieneko kirol zerbitzuek antolatuta. Baldintzak: 16 urte beteta izatea eta eskola-graduatu edo DBHko 2. maila gaindituta izatea. Eskolak Elgetan izango dira, zapatuetan eta domeketan. Prezioa: 125.000 pezeta. Debagoieneko kirol zerbitzuetako abonatuendako, eta gainerakoendako, 135.000. Izena emateko epea otsailaren 5ean bukatuko da. Argibideak Debagoieneko kirol zerbitzuetan.

ESKORIATZA

> **Antzerki tailerra** Olatz Pagaldaireren eskutik urtarrilaren 27tik aurrera, zapaturo, 11:00etatik 13:00etara. Izen-ematea hilaren 21a arte zabalik Eskoriatzako Kultura Etxean. Ikasle eta langabeendako, 1.000 pezeta, eta langileendako, 2.000.

BERGARA

> **Simon Arrieta zeramika taldeak** ikastaroa antolatu du otsailaren 5etik aurrera, astelehen eta eguaztenetan, Zabalotegiko lokalean, 18:30etik 20:30era. Ikastaroak bost hilabete iraungo du. Izen-ematea (5.000 pezeta, materiala barne), urtarrilaren 27a arte zabalik. Argibideak eta izen-ematea 943 76 19 17 edo 606 68 41 94 telefonoetan.

> **Artearen historia** izeneko ikastaroa. Irakaslea Oihana Garitano izango da. Izen-ematea Etxepare liburu dendan. Argibideak 943 76 35 99 telefono zenbakian.

Jaiak

BERGARA

> **San Paulo jaiak Uberan.** Mus txapelketa zapatuan, hilak 27, Jaolatz elkartearen, 16:00etan. Bestalde, San Pauloko pilota txapelketako finalak (jubenil eta seniorrak) domekan, hilak 28, 12:00etan. Ondoren, salda eta txorizoa.

ARRASATE

> **San Baleixo jaiak Arrasaten, Meatzerrekan.** Eguabakoitzean, hilak 26, auzo afaria bertsoariekin, 21:00etan. Zapatuan, hilak 27, futbito partidua, 12:00etan; ume eta gazteendako jolasak 15:30ean; orduete geroago, 16:30ean, Gorritiren abereak; 17:00etan mus txapelketa jokatu da; 23:00etan, erromeria Anaiak taldearekin; eta goizaldeko 01:00etan, txerri harrapaketa eta txokole-jana. Domekan, hilak 28, 11:30ean meza San Baleixo ermitan, Gesalibar eta Garagartzako abesbatzarekin; 13:00etan, trikitalariak eta buruhandiak; eta jaien amaiera, 14:00etan.

Deiak

ARRASATE

> **El Salvadorri** laguntza emateko kontua zabaldu du Medicus Mundurakundeak: BSCH 0049 0001 2810016616.

ARETXABALETE

> **Mendi irteera** Topinburua domekan, hilak 28, Zariaiko loketetik, 08:30ean.

> **Eski irteera.** Murruxiko mendizale elkarteak eski irteera antolatu du otsailaren 17 eta 18rako Luz Ardideneko estazioetan eskituko da. Ikasle eta bazkideendako, 11.000 pezeta; bazkideendako, 12.000; eta gainerakoendako, 13.000 pezeta. Autobusa, ostatua eta estazioerako sarrera eta aseguru prezioaren barne.

> **Eusko Alkartasunak** antolatuta, *Euskal Herria marko politikojuridiko berri baten bidean* libururen aurkezpena egunean, otsailaren 1, udaletxe zaharrean, 19:00etan. Iñaki Galdos oñatiarrak hitzaldia emango du.

BERGARA

> **Odol ateraldia** eguaztenean, hilak 31, Seminarioko lokalean, 18:30ean. Herriko odol emaleen parte hartzeko deia luzatzen zaien.

> **Hezitze gure modua sexistal da?** hitzaldia astelehenean, hilak 29, Bergarako Kultura



KONTZERTUA

BERGARAKO UDAL MUSIKA BANDA

Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean, Bergarako Udal Musika Bandak denboraldiko lehen kontzertua eskainiko du domeka eguerdian. Programa honako hau izango da: *Marcha cosaca* (Pares), *La forza del destino* (Verdiren obertura, bere heriotzaren 100. urteurrenarekin bat eginez), *Lorea* (Miguel Gonzalez Bastida), *La granjera de Arles* (Zarzuelako selezioa, Rosillorena) eta, azkenik, *Raise of the son* (Galante).

Noiz: Domeka, hilak 28. Tokia: Bergarako Udal Pilotalekuan. Ordua: 12:30. Sarrera: Doan.

Margo erakusketa

Jose Zufiaurren margolanak
Mondragoeko Toki-Eder kafetegian

Otsailaren bukaera arte

Zinema

Etxean, 18:30ean. Guraso eta irakasleendako. Hizlaria: Beatriz Ugarte, giza baloreen heziketan aditua eta hezikidetzan espezializaturua. Aranzadi Ikastolak Udaleko Ongizate Zerbitzuaren laguntzaz antolatuta.

> **Si tu hijo te pide un libro** hitzaldia eguaztenean, hilak 31, Bergarako Kultura Etxean, 18:30ean. Guraso eta irakasleendako. Hizlaria: Lolo Rico, idazlea eta telebista saioretako gidolari eta zuzendaria. Aranzadi Ikastolak Udaleko Ongizate Zerbitzuaren laguntzaz antolatuta.

> **2. DBHO Batxilergoa amaitu ondoren** ikasleek dituzten irtenbideen inguruko hitzaldia emango da eguaztenean, hilak 31, Ipintza institutuko aretoan, 19:00etan.

> **Ipintza institutuak** gogorazten du lehen hezkuntzako 6. mailako ikasleen DBHko matrikula egiteko epea otsailaren 16an bukatzen dela.

> **1956an** jaiotakoen afaria urtarrilaren 27an, Txuringo jatetxean. Joan-etorria egiteko autobusa izango da. Partaideak pilotalekuan batuko dira, 20:30ean. Izen-ematea: Txuringon edo 943 76 48 63 zenbakian.

> **Bergarako Orfeoiko** loteria Kutxako bulegoan kobra daiteke.

> **Bergarako gaztetxean** zinema emanaldiak eguaztenero, 21:30ean.

> **EHEK** deituta, *Erasoan gainetik, ofizialtasuna eta euskal eskola* lelopean, manifestazioa egubakoitzean, hilak 26, San Martin plazan, 20:00etan.

> **Artatse** elkartearen batzar orokorra zapatuan, hilak 27, 16:30ean.



ZUMARRAGA
> **Mendien industrializazioaren kontrako mendi ibilaldia** domekan, hilak 28. Tren geltokitik irten-go dira, 10:00etan.

Museoak

LEINTZ GATZAGA
> **Gatz museoa.** Asteburuetan eta jaiegunetan lau bisitaldi: 11:30 /

ARRASATE / ALAI ZINEMA

Cherry falls

Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

Karramarroaren uhartera

Zapatua eta domeka: 17:00.

AMAIA

Buena Vista Social Club

Eguena, zine-kluba: 21:30.

BERGARA / NOVEDADES

Planeta rojo

Egubakoitza: 22:30.

Zapatua: 19:30, 22:30.

Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

Pokemon 2

Zapatua eta domeka: 17:00.

El halcón inglés

Eguena, zine-kluba: 20:00.

OÑATI / SANTANA

Cherry falls

Egubakoitza: 22:30.

Zapatua: 22:30.

Domeka: 19:30, 22:30.

Astelehena: 19:30.

El rey y yo

Domeka: 17:00.

El verano de Kikujiro

Eguena, zine-kluba: 20:00.

EIBAR

UNZAGA

Dinosaurio

Egubakoitza: 19:30.

Zapatua: 17:00, 19:30.

Domeka: 17:00, 19:30.

Astelehena: 19:30.

Martitzena: 19:30.

Eguaztina, ik. eguna: 19:30.

Almejas y mejillones

Egubakoitza: 22:15.

Zapatua: 22:15.

Domeka: 22:15.

Astelehena: 22:15.

Martitzena: 22:15.

Eguaztina, ik. eguna: 22:15.

RIALTO

Al diablo con el diablo

Egubakoitza: 19:30, 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ik. eguna: 19:30,

22:15.

ELGOIBAR / HERRIKO ANTZOKIA

Luna papa

Egubakoitza, zine-kluba: 22:15.

Para todos los gustos

Zapatua: 19:30, 22:15.

Domeka: 19:30, 22:15.

Astelehena: 22:15.

Banpiro txikia

Domeka: 16:30.

π (3,1416)

Eguena, zine-kluba: 21:30.

ELORRIO / ARRIOLA

Lo que la verdad esconde

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

La ley de Herodes

Eguena, zine-kluba: 20:15.

AZKOITIA / BAZTARTXO

Lo que la verdad esconde

Egubakoitza: 22:00.

Zapatua: 22:00.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.

Astelehena: 20:00.

GASTEIZ

GURIDI

El protegido

Egubakoitza: 17:30, 20:00,

22:30, 1:00.

Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30,

1:00.

Domekatik egunera: 17:30,

20:00, 22:30.

Family man

Egubakoitza: 17:00, 19:45,

22:30, 1:00.

Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30,

1:00.

Domekatik egunera: 17:00,

19:45, 22:30.

Todo me pasa a mi

Egubakoitza: 17:00, 19:45,

22:30, 1:00.

Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30,

1:00.

Domekatik egunera: 17:00,

19:45, 22:30.

Los padres de ella

Egubakoitza: 17:00, 19:45,

22:30, 01:00.

Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30,

1:00.

Domekatik egunera: 17:00,

19:45, 22:30.

Ni uno menos

Egubakoitza: 17:00, 19:45,

22:30, 1:00.

Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30,

1:00.

Domekatik egunera: 17:00,

19:45, 22:30.

Memento

Egubakoitza: 17:30, 20:00,

22:30, 1:00.

Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30,

1:00.

Domekatik egunera: 17:30,

20:00, 22:30.

Al diablo con el diablo

Egubakoitza: 17:30, 20:00,

22:30, 1:00.

Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30,

1:00.

Domekatik egunera: 17:30,

20:00, 22:30.

MIKELDI ZINEMAK

Abajo el telón

Egubakoitza: 17:15, 20:00,

22:45, 1:15.

Zapatua: 20:00, 22:45, 1:15.

Domeka: 20:00, 22:45.

Astelehenetik egunera: 17:15,

20:00, 22:30.

Naufrago

Egubakoitza: 17:00, 20:00,

22:45, 1:15.

Zapatua: 17:00, 20:00, 22:45,

1:15.

Domeka: 17:00, 20:00, 22:45.

Astelehenetik egunera: 17:00,

19:45, 22:30.

Al diablo con el diablo

Egubakoitza: 17:30, 20:00,

22:45, 1:15.

Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30,

22:45, 1:15.

Domeka: 16:30, 18:30, 20:30,

22:45.

Astelehenetik egunera: 17:15,

20:00, 22:30.

Dinosaurio

Zapatua eta domeka: 16:30,

18:15.

Los padres de ella

Egubakoitza: 17:30, 20:00,

22:45, 1:15.

Zapatua: 16:00, 18:15, 20:30,

22:45, 1:15.

Domeka: 16:00, 18:15, 20:30,

22:45.

Astelehenetik egunera: 17:30,

20:00, 22:30.

La bendición

Egubakoitza: 17:30, 20:00,

22:45, 1:15.

Zapatua: 16:00, 18:15, 20:30,

22:45, 1:15.

Domeka: 16:00, 18:15, 20:30,

22:45.

Astelehenetik egunera: 17:30,

20:00, 22:30.

Family man

Egubakoitza: 17:15, 20:00,

22:45, 1:15.

Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45,

1:15.

Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.

Astelehenetik egunera: 17:15,

20:00, 22:30.

Pokemon 2

Zapatua eta domeka: 16:00,

18:15.

En una tierra salvaje

Egubakoitza: 17:15, 20:00,

22:45, 1:15.

Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45,

1:15.

Domeka: 17:15, 20:30, 22:45.

Astelehenetik egunera: 17:15,

20:00, 22:30.

El protegido

Egubakoitza: 17:30, 20:00,

22:45, 1:15.

Zapatua: 16:00, 18:15, 20:30,

22:45, 1:15.

Domeka: 16:00, 18:15, 20:30,

22:45.

Astelehenetik egunera: 17:30,

20:00, 22:30.

La comunidad

Egubakoitza: 17:15, 20:00,

22:45, 1:15.

Zapatua: 20:30, 22:45, 1:15.

Domeka: 20:30, 22:45.

Astelehenetik egunera: 17:15,

20:00, 22:30.

La ruta hacia el dorado

Zapatua eta domeka: 16:15.

MIKELDI ZINEMA

Baloia

Zapatua eta domeka: 16:30,

18:30.

Granujas de medio pelo

Zapatua eta domeka: 20:30,

22:30.

Astelehenetik egunera: 17:30,

20:00, 22:30.

SAMANIEGO

Manuelita

Zapatua eta domeka: 17:30.

El camino a casa

Zapatua eta domeka: 20:00,

22:30.

Astelehenetik egunera: 17:30,

20:00, 22:30.

Lázaro de Tormes

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Comida rápida mujeres

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

The body (El cuerpo)

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.



PLANETA ROJO

ZUZENDARIA: A. HOFFMAN.

AKTOREAK: VAL KILMER,
CARRIE ANNE MOSS.

> 13 URTE

2050. urtean Lurra egoera larrian dago, kutsaduraren ondorioz. Dagoeneko ia ez da basorik geratzen eta gainpopulazioa ikaragarria da. Gauzak horrela, irtenbide bakarra da beste planeta bat kolonizatu eta hara bizitzera joatea. Astronauta talde bat Marte planetara joango da, hantxe bizitzea posible den edo ez jakiteko. Baina, ongiartorria ez da izango eurak uste ezten bezalakoa... Aktore bikainak tentsioz beteriko film honetan.

CHERRY FALLS

URTEURRENA

**Maria Bergaretxe Aranzabal
Jesus Ugarte San Pedro**



Lehen urteurreneko meza domekan, urtarrilak 28, 11:30ean, Aretxabaletako Galartza auzoko elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

**Juan Mari
Garai Arregi**

Oñatin hil zen
2001eko urtarrilaren 21ean,
79 urte zituela.

Zure senideok ez zaitugu ahaztuko



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

**Teodora
Astigarraga Aldazabal**

Oñatin hil zen
2001eko urtarrilaren 14an,
94 urte zituela.

Zure senideok ez zaitugu ahaztuko



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

**Juan
Errasti Zufiria**

Oñatin hil zen
2001eko urtarrilaren 22an,
87 urte zituela.

Zure senideok ez zaitugu ahaztuko



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

**Julian
Uriarte Madinabeitia**

Oñatin hil zen
2001eko urtarrilaren 16an,
75 urte zituela.

Zure senideok ez zaitugu ahaztuko



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

**Marcelino
Castelo Fernandez**

Arrasaten hil zen
2001eko urtarrilaren 22an,
78 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



ESKER ONA

**Begoña
Arana Ariznabarreta**

Bergaran hil zen
2001eko urtarrilaren 7an,
70 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



ESKER ONA

**Catalina
Molina Peñuela**

Antonio Garcia Salazar "Gabino" ren alarguna

Zumarragan hil zen
2001eko urtarrilaren 18an,
73 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez Goienkariaren ordezkarietzako batera.

BERGARAN, Berrigararen egoitzan, Irizar jauregian; Barrenkalea, 33
943 76 92 71 (*Goienkaria*)

ARRASATEN, ARKOren egoitzan; Otalora Lizentziaduna, 31 / 943 71 25 11

ARETXABALETAN, Aretxagazetaren egoitzan; Durana, 11 / 943 79 86 21

ARAMAION, Kintelena dendan; Nardeaga, 11 / 945 44 50 22

ELGETAN, Mari Asun Agirre dendan; Salvador, 26 / 943 76 81 90


ANTZUOLAN, Itzar liburu dendan; Kálebarren, 1 / 943 76 60 62

JAIOTAKOAK


- Oier Arevalillo Labaien**
Urtarrilaren 8an, Bergaran.
- Julen Madinabeitia Arantzabal**
Urtarrilaren 9an, Arrasaten.
- Arian Lopez Valdezate**
Urtarrilaren 11n, Aretxabaletan.
- Zaida Del Rio Sanchez**
Urtarrilaren 11n, Arrasaten.
- Olaia Santamaria Sampietro**
Urtarrilaren 15ean, Bergaran.
- Aitor Tatlegi Loidi**
Urtarrilaren 16an, Oñatin.
- Eñaut Beltran De Heredia Altube**
Urtarrilaren 17an, Aretxabaletan.
- Eider Magunazelaia Ozaeta**
Urtarrilaren 18an, Arrasaten.
- Garazi Azkue Muxika**
Urtarrilaren 22an, Arrasaten.

HILDAKOAK

- Julian Uriarte Madinabeitia**
Oñatin, urtarrilaren 16an,
75 urte zituela.
- Daniel Igartua Arana**
Aretxabaletan, urtarrilaren 18an,
71 urte zituela.
- Gracian Lete Aranguren**
Bergaran, urtarrilaren 18an,
85 urte zituela.
- Katalina Molina Peñuela**
Bergaran, urtarrilaren 18an,
73 urte zituela.
- Valentin Larrañaga Larrañaga**
Bergaran, urtarrilaren 18an,
86 urte zituela.
- Maria Begoña Sagastume Lezeta**
Bergaran, urtarrilaren 19an,
60 urte zituela.
- Maria Aranzazu De Zaldúa Anabitarte**
Bergaran, urtarrilaren 19an,
80 urte zituela.
- Jesus Mari Beltran de Guevara Ortíz**
Arrasaten, urtarrilaren 19an,
55 urte zituela.
- Victoria Iturbe Milikua**
Arrasaten, urtarrilaren 19an,
82 urte zituela.
- Jesus Alberdi Atxotegi**
Bergaran, urtarrilaren 20an,
83 urte zituela.
- Sor Maria Concepcion Arrieta Garate**
Bergaran, urtarrilaren 21ean,
88 urte zituela.
- Fernando Rodrigo Dovan**
Bergaran, urtarrilaren 21ean,
61 urte zituela.
- Antonia Arrieta Gisasola**
Oñatin, urtarrilaren 21ean,
88 urte zituela.
- Juan Mari Garai Arregi**
Oñatin, urtarrilaren 21ean,
79 urte zituela.
- Juan Errasti Zufiria**
Oñatin, urtarrilaren 22an,
87 urte zituela.
- Florentina Gallastegi Ezkurra**
Arrasaten, urtarrilaren 22an,
82 urte zituela.
- Valentin Carrillo Arnaez**
Arrasaten, urtarrilaren 22an,
86 urte zituela.
- Marcelino Castelo Fernandez**
Arrasaten, urtarrilaren 22an,
78 urte zituela.
- Juana Monserrat Beiro Pouso**
Arrasaten, urtarrilaren 23an,
44 urte zituela.



Igor Salgado Letxuga oñatiarra urtarrilaren 15ean jaio zen Arrasateko ospitalean eta 3,170 kilo pisatu zuen. Argazkian, **Bea** amarekin, oñatiarra hau ere. **Manuel Salgado** zumarragarra da aita.



Odei De La Torre Urtzelai aramaioarra, **Leixuri** amaren besoetan, aramaioarra hau ere. **Odei** urtarrilaren 15ean jaio zen Arrasaten eta 3,375 kilo pisatu zuen. Aita, **Paco**, mondragoetarra da.




Eider Magunazelaia Ozaeta eta **Miren** ama, mondragoetarrak biak. Eider urtarrilaren 18an jaio zen Arrasateko ospitalean eta 2,960 kilo pisatu zuen jaiotzerakoan. Aita, **Andoni**, mondragoetarra da.



Asier Eslava Nieves urtarrilaren 20an jaio zen Arrasateko ospitalean eta 2,425 kilo pisatu zuen. Argazkian, **Iratxe** amarekin, mondragoetarrak biak. **Juanjo Eslava** da aita, mondragoetarra hau ere.



Eñaut Beltran de Heredia Altube atxabaltarra **Mirari** amarekin, atxabaltarra hau ere. Eñaut urtarrilaren 17an jaio zen Arrasateko ospitalean eta 3,500 kilo pisatu zuen. Aita, **Felix**, atxabaltarra da baita ere.





Garazi Azkue Muxika mondragoetarra **Edurne** amarekin, mondragoetarra hau ere. Garazi urtarrilaren 22an jaio zen Arrasaten eta 2,885 kilo pisatu zuen. Aita, **Iñaxio Azkue**, eibartarra da.

Goienkaria

Goienkariak *argazkilaria* behar du

Interesatuok: 943 76 92 71

Eguraldia



ZAPATUA, 27

Zeruak estalita egongo dira egun osoan, eta tarteka, euri txikia egingo du. 1.100 metrotik gora, berriz, elurra. Tenperaturak behera egingo du; mendebaletik joko duen haizeak, baina indar txikiarekin.

Nafarroako Erribera: Lainotsu.

Errioxa: Lainotsu.

Pirinioak: Lainoak eta ostertek.

DOMEKA, 28

Oso egun lainotsua izango dugu domekan. Euria egingo du, tarteka, ekaiztsu. 800 metrotik gora elurra egingo du. Tenperatura berrito jaitziko da. Haizeak nahikoa gogor joko du, ipar-mendebaletik.

Nafarroako Erribera: Euritsua.

Errioxa: Lainotsua, tarteka, euria.

Pirinioak: Ekaitz arriskua.

ASTEKO BATEZ BESTEKO TEMPERATURA

9,8°C

ILARGIAREN ALDIAK: URTARRILA



EGUZKIA: URTARRILAREN 28a



Urtegiak

URKULU
Aurreko astetik hona ez du aldaketa nabarmenik izan
Urkuluko ur-mallak. Joan zen astean %80,5ean zegoen; aste honetan, berriz, %80,83an.
%80,8

Mezak

ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

Astegunetan

08:30, 12:00.

Zapatuetan

08:30, 12:00, 19:30.

Domeka eta jaiegunetan

09:00, 10:00, 12:00 (nagusia),

13:15 (gaztelaniaz, Kriptan), 17:30.

Telefonoak

((112))
SOS DEIAK

Table with 2 columns: Location, Phone Number. Includes Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Oñati, Hies Ekimena, Udaltzaingoak, Antzuola, Aramaio, Arrasate, Aretxabaleta, Bergara, Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Oñati.

Table with 2 columns: Location, Phone Number. Includes Bergara, Eskoriatza, Oñati, RENFE, DEBAGOIENA, Mankomunitatea, Abere hiltzaria (Zubillaiga), Mendi nekazaritza elkarte, Nekazaritza Ganbera, Kapirixo, Zerqa Bulegoa, Euskara Taldeak, Debagune, Arrasate / AED, Aretxabal. / Loramendi, Bergara / Jardun, Eskoriatza / Axtroki, Oñati / Laixan, Hondakindegi Alternatiboak.

Table with 2 columns: Location, Phone Number. Includes Aramaio, Arrasate, Aretxabaleta, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Oñati, Kultura Etxeak, Udalak.

GARRIAOAK
Table with 2 columns: Location, Phone Number. Includes Eusko Trenbideak, PESA, Taxiak.

Table with 2 columns: Location, Phone Number. Includes Arrasate, Aramaio, Oñati, Kiroldegiak.

Zozketak

Table with lottery results: BONOLOTOA, LOTERIA PRIMITIBOA, ONCE. Includes numbers for EGUAZTENA 24, MARTITZENA 23, ASTELEHENA 22, EGUBAKOITZA 19, DOMEKA 21, ZAPATUA 20, Saritzarra EGUENA 18.

Autobusak

PESA 902 10 12 10

A: Astegunak / Z: Larunbatak / J: Jaiegunak eta Igandeak

DONOSTIA-GASTEIZ
Table with columns: BERGARA, ARRASATE, ESKOLA P., ARETXABAETA, ESKORIATZA. Shows bus routes and times.

GASTEIZ-ARRASATE-BERGARA-EIBAR-DONOSTIA
Table with columns: GASTEIZ, ESKORIATZA, ARETXABAETA, ARRASATE, BERGARA. Shows bus routes and times.

DONOSTIA-BILBO
Table with columns: DONOSTIA, ANTZUOLA, BERGARA, ELGETA, BERGARA OÑATI. Shows bus routes and times.

BILBO-DONOSTIA
Table with columns: BILBO, ELGETA, BERGARA, ANTZUOLA, OÑATI-BERGARA. Shows bus routes and times.

OÑATI-ARRASATE-BILBO
Table with columns: OÑATI, ARRASATE, BILBO, ARRASATE, OÑATI. Shows bus routes and times.


BERGARA-ARRASATE-BILBO
Table with columns: BERGARA, ARRASATE, BILBO, ARRASATE, BERGARA. Shows bus routes and times.

BERGARA-OÑATI-ARRASATE-ARETXABAETA-ESKORIATZA
Table with columns: BERGARA, OÑATI, ARRASATE, ARETXABAETA, ESKORIATZA. Shows bus routes and times.

ESKORIATZA-ARETXABAETA-ARRASATE-OÑATI-BERGARA-EIBAR
Table with columns: ESKORIATZA, ARETXABAETA, ARRASATE, OÑATI, BERGARA. Shows bus routes and times.

BERGARA-ANTZUOLA-IRUÑEA
Table with columns: BERGARA, ANTZUOLA, IRUÑEA, ANTZUOLA, BERGARA. Shows bus routes and times.

Erakunde hauen laguntzaz
Logos for Gipuzkoako Foru Aldundia, Europar Batasuna, Arrasateko Udala, Aramaioko Udala, Aretxabaletako Udala, Eskoriatzako Udala, Leintz Gatzagako Udala, Antzuolako Udala.



Umore giroan

David Peñalver

KURIOSIDADIA

Semiak amari:
- Ama, ama, zer daukazu hor hankartian?
- Aizkorakadia, seme.
- Ba, pottorro erdixan jo dotsu bateron batek, eh...

OHEAN

Andra-gizonak ohian: andria juergarako asmuakin, gizona berotzen saiatzen da.
- Kaxinto, hotzak najak.
- Laga lotan.
- Kaxintoo, hankartian bittarte bat jakat.
- Ba, tapain, hotza bertatik sartuko jatan-eta.

POTRO-ZORRIXAK

Tipo bat sartu da medi-

kuaren kontsultan:

- Mediku jauna, badakazu zeozer ona potro-zorri-xendako?
- Bai, bota hau esprai-xau.
- Astuan potruak. Horrek akabau egitten ditte.

ABADIA ETA MONJIA

Eskolan, andereñuak mutikuari:
- Hire aittak zein ogibide jakak?
- Abadia da.
- Eta ama?
- Monjia.
- Orduan, ze egin juen, sotana eskegi?
- Ez, pixka bat jaso baka-rrik.

Hitz gurutzatuak

Luma										
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										



Ezker eskuma

1/ Eltze-itsu. 2/ Hautuak. 3/ Sindikatu abertzalea. Tona. Nahia. 4/ Atzizkia. Zabor. Röntgen. 5/ Pizgarria. 6/ Trebea. Oriaren erdian. Nitrogenoa. 7/ Bostehun. Musika nota. Kasik. Musika nota. 8/ Ezin izan daitezkeenak. 9/ Gipuzkoako herria. Sodioa. Iparretarrak. 10/ Droga-mota. Oinarizko edari.

Goitik behera


1/ lhesari emateko bideak. 2/ Behatokia. Arrazoi. 3/ Garra. Eztenak. 4/ Utiki! Esaten zuen. Lehenengoa. 5/ Langa bateko zurezko hageta bakoitza. Niri. 6/ Nor atzizkia. Errepikatuz, gorotza. Ukan. 7/ Pluralean, ontzi-mota. Bokala. 8/ Iturburu. Interjekzioa. 9/ Ekarri aditzaren erroa. Bat. Aintzira. 10/ Pluralean, aran-mota. Kontsonantea.

Bila-bila 7



Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola




Zein herri dago gorago?

Oraingo hau txirindulariendako galdera da. Inongo duda barik, denok jakingo duzue Elgeta dela bailaran goren dagoen herria. Baina, Oñatitik Arrasatera joanez gero, zer egiten da igo ala jaitsi? Eta Oñatitik Antzuolara joanez gero? Bi galderok bakarrera ekarrita, zein dago hiru herriotatik altuen eta zein baxuen?

- Antzuola?
- Oñati?
- Arrasate?

Erantzun zuzena: Altuen, Oñati (231,4 m); baxuen, Arrasate (210 m). Antzuolako hirigunea 230 metrorra dago.

Soluzioak



Goitik behera
1/ lhesariemateko bideak. 2/ Tona. Nahia. 3/ Utiki! Esaten zuen. 4/ Bokala. 5/ Errepikatuz, gorotza. 6/ Errepikatuz, gorotza. 7/ Errepikatuz, gorotza. 8/ Errepikatuz, gorotza. 9/ Errepikatuz, gorotza. 10/ Errepikatuz, gorotza.

Horoskopoa

Berenize

ARIES

martxoak 21-apirilak 21

Zure nagusia, Eskorpionetik pasatuko da, eta horren eraginez, zure lan eta ekonomia kontuak bikain ibiliko dira. Alboratuta zenituen egitasmoak bizkor-tu egingo dira eta ondo bukatuko dute. Hala ere, intimitatea behar duzu. Harreman arazoak izango dituzu.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21

Aspalditik egin beharreko zerbait duzula, edo ekintza berri interesgarriak sortzen zaizkizula... kontua da lanak denbora hartuko dizula. Erne egon gero, ezustek egon daitezke eta.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21

Jupiter luzaroen egon da zure zeinuan, baina 26an beste norabaitera joango da; hortaz, zure zortea erabat aldatuko da. Zure buruarengan segurtasuna berreskuratuko duzu, eta lan edo diru planak egiteko une ezin egokiagoa izango duzu.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22

Ilberria da zure nagusia eta Acuariotik pasa da. Horregatik, bake-bakean egon zara. Saia zaitez goxotasun hori familiarri eta lagunel igortzen. Une txarra duzu diru kontuetarako.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22

Bakarkako arrakasta profesionala lortzea besterik ez duzu gogoan. Hori dela eta, ez zara konturatzan ingurukoek zure ideiak eurekin banatzea nahi dutela. Adiskideak oso garrantzitsuak dira zuretzako; ez ezazu hori ahaztu, eta fidatu eurekin.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22

Antolatze zeure burua, eta denbora ondo banatu. Lanean hainbat ezusteko izango dituzu, eta ahal duzun guztia eskaini beharko diezu. Hala ere, ez baztertu familiarekin dituzun betebeharrak. Gogoratu familia dela lehenbizikoa.

LIBRA

irailak 23-urriak 22

Etorkizunaren gaineko ideia konplikatuek ez zaitzatela larregi arduratu. Bidaia labor bat egitea komeni zaizu: ideiak antolatzen, lasaitzen eta ondo egoten lagunduko dizu.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22

Marte zure zeinuan sartuko da, eta barne hunkipenak positiboki bideratzeko aprobetxatu beharko duzu une hori. Lankideenganako mendeku gogoek ez zaitzatela hartu: gogoan izan jelskortasuna ez dela bidaia lagun ona.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21

Mugimendu handiko egunak izango dituzu. Berri eta bidaia asko suertatuko zaizkizu. Garai ona duzu hau zure izaera sendotzeko. Baikorra izango zara.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20

Bikotekidearekin duzun harremana eta komunikazioa sendotu, jelskortasuna gaitortu beharreko oztoporik handiena bihurtuko da eta. Adiskideekin ere hartu-eman handiagoa izatea komeni zaizu.

AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20

Hilaren 24an Ilberri izan zen zure zeinuan. Hortaz, ingurukoekin adeitsu eta maitagarri izango zara. Izan ere, eguzkia hilabete osoan egongo da zure zeinuan, eta horregatik, Zodiakoko errege/erregina izango zara. Zorionak!

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20

Lanean aldaketa bat izango duzu eta horrek egunerokotasunetik aterako zaitu. Bete-betean lan egiteko oztopok agertuko zaizkizu, baina zuk zeuk eramango duzu agintea, gutxienez.

Ibilaldiak

Bergarako San Blas ermita eta inguruak

Xabier Larrañaga

Muriñondoko San Blas ala San Blas auzoko Muriñondo?

HURRENGO ZAPATUAN, OTSAILAREN 3AN, SAN BLAS EGUNA

Kristo ondorengo III. mendean izendatu zuten gotzain Blas, Diokleziano inperadorearen garaian, hain zuzen ere. Baina, kargua jaso bezain pronto, Kapadoziako paraje eder batera alde egin zuen gure santuak, bakardadean bizitzeko asmoz. Animalien lagun eta zaindari, ekologista kutsua ere ba ei zuen. Martirio galanta pasatu bazuen ere, mirariak egiteko dohainarengatik ezagutzen dugu, batez ere. Atxilotuta, animaliak defendatzeagatik, gobernadorearengana zeramatela, emakume bat gerturatu zitzaion, hilzorian zegoen ume bat zeramala; umeak ezin zuen arnasarik hartu, eztarrian arrain arantza kateatuta zuelako. San Blasen eskuek eta otoiitzek gainontzekoa egin zuten umea bere onera ekartzeko. Hau guztia, laburtuta jakina, Erdi Aroan Santiago de la Voraginek idatzitako *Urrezko Legenda* delakotik hartutako pasartetxoa baino ez da.

San Blasen debozioa osa zabaldua badago ere, ez dira asko bere omenez jasotako eliza edo basilizak. Gipuzkoan zortzi bat basiliza baino ez dira agertzen; horietatik bost probintziaren mendebalean aurkitzen ditugu: Basalde auzoan, Antzuolan, oraindik kultua gordetzen duena; Elgetakoak ere kultuari eusten dio; Mutrikuko Ibirri auzokoa eta Bergarako San Blas auzoan dagoena; Aretxabaletan ere bazen beste bat, Leizabalgo San Blas, baina jada ez du basiliza funtziorik betetzen.

Gauzak horrela, hurrengo astean San Blas jaia denez, Bergarako bisitatzea proposatzen dugu. Ondorengo irakurri eta gero, begibistakoa begitanduko zaigu zergatik aukeratu dugun hori.

IKUSTEKOAK

Eraikina bera ez da oso aparta. Gaur egun, bi zonalde bereiz daitezke: basiliza bera eta XVIII. mendean basilizari kendutako zatiaz itsatsita egin zen baserria. Elementu apaigarrien artean, abside aldean, gailurrean jasotako kanpandorretxoa eta ezer gutxi. Benetan aipagarri eta bikaintzat jo daitekeena barruan, erretaularen erdian, ikus daiteke: bi zutabe salomondarren erdian Buriñondo, Buiñondo edo Buñondoko Ama Birjina dago: "Buiñondo basilizan dagoen Gizakundeko Andre Mariaren imajina hau aparteko obra dugu Erdi Aroko imajinagintza erlijiosoaren barruan, eta ez bakarrik Euskal Herrian, izatez, ia pieza bakarra da eta." (ARANBURU, Maria Jose, GIL, Jesus: *Artea Bergaran. Erdi eta Moderno aroak*). Antzekoak ikusteko urrutira joan beharko ginateke, nemen



Muriñondoko gizakundeko Andre Mariaren imajina San Blas ermitan.



Zelan iritsi San Blasera?

Mekolalde eta Bergara artean dago, ibaiaren eskumaldean, hain zuzen. Bergarako denak zelan eta nondik joan jakingo duelakoman, hona hemen bisitatu nahi duten kanpotarrendako eginiko proposamena: autoz joanez gero, kanposantu ondoko aparkalekuan laga. Autobusez joan nahi duenak geltokitik leku horretara dagoen bidea egin beharko du. Aparkalekutik Goiko Estaziñura igo, San Lorenzo auzoa utzi eta gero. Igoera patxadatsua da eta beta izango dugu Moyua dorrearen arkitektura barroko dotorea ikusteko. Trenbidera iritsi eta gero, ezkeraldera. Hemen trenbidea hartu iparralderantz, beheerantz, eta bi kilometroa edo trenbidea zeharkatzen duen bide batekin egingo dugu topo. Hemen eskumarantz jo, gorantz, eta 300 bat metroa dago bisitatu behar dugun basiliza.

inguruan ez dago eta horrelakorik.

Metro eskas duen irudia XIV. mendearen erdialdean egin zen: egurrezko eta urrezaturiko irudia eserita eta otoiitzean dago, eta hiru eratara aurkez daiteke: batetik, Andre Mariak Jesus haurra altxoan, aurrean duela; bestetik, haurra kendu ondoren eta Ama Birjinaren sabela zabaldua, Trinidadea (Aita, Semea eta Espiritu Santua) azaltzen da sabelaren barruan; eta azkenik, hirugarrena, haurra kenduta, baina sabela zabalzteke: Ama Birjina haurdun.

Teknika aldetik kalitate ona erakusten duen obra honek, eta ikonografia ikusita, pentsa liteke hemen inguruko ekoizpenetik kanpo geratzen dela: nori ekarri edo agindu zuen ekartzea atzerrian eginiko irudi hau?

Aipagarriak, baina, bigarren mailakoak dira: Ama Birjinaren alboetan dauden San Blas gotikoa eta ezkeraldekoko Santa Isabel (XVI. mendekoa).

BESTELAKOAK

Otsailaren 3an, San Blas egunean, jendea hurbiltzen bada ere, ondorengo domekan, San Blas Txiki egunean, ospatzen da jai inportantea. Ogia eta opilak bedeinkatzen dira. Meza ostean, ba ei da zereginik.

HASIERAKO GALDEREI ERANTZUNEZ

Antxon Agirre Sorondok eta Koldo Lizarralde Elberdinek argitaraturiko *Ermitas de Gipuzkoa* delakoan argibide batzuk eskaintzen dituzte erantzuna emateko: XVI. mendearen hasieran "Santa Marya de Buruñao" bezala azaltzen da. XVIII. mendean erdialdean, basiliza aipatzerakoan, "Nuestra Señora de Buriñano" azaltzen da. Gaur egunera San Blas bezala iritsi zaigu. Zer gertatu da horrelako izen aldaketa emateko? Beste zenbait leketan bezala, mirari egile apartaren ospea zuela eta, ez ote zion San Blasek Ama Birjini berari aurre hartuko?

Ardoaren txokoa

Mikel Garaizabal / Sumelierra eta enologoa

Zer da ardoa?

ARDOA EGITEKO PROZESUAREN AZALPENA

Hainbat aste daramatzat ardoaren kulturaren gainean berba egiten, baina oraindik ez dut zehaztu ardoa zer den edo nondik datorren. Produktuek definizio bat daukate, eta ardoak ere bai, jakina: enologia liburuetan begiratzen badugu, mahats freskoaren edo muztioaren hartidura alkoholikotik ateratzen den edaria dela irakurriko dugu. Beste era batera esanda: legamiak muztioaren azukrea jaten dute eta azukre hori, beste hainbat produkturen artean (lurrinak eta zapoak, esaterako), gehienbat, alkohol eta karbono oxido (Co2) bihurtzen dute.

Legamiak lurretik datoz eta, haizeak edo intsektuek eramanda, mahatsaren azalean dagoen geruzan kokatzen dira. Geruza hori pruina deritzo.

Louis Pasteur (1822-1895) frantziarrak topatu zuen mikrobiologiaren eta ardoaren arteko harremana. Lehen uste zuten muztioaren berezko deskonposizio bat zela hartidura. Esan behar da fermentazioa Fervere (irekita) izen latindarretik datorrela. Pasteurrek, hainbat ikerketa egin ondoren, erakutsi zuen legamiak, oxigeno barik eta tenperatura egokian daudenean, azukrearen glukosajana eta alkohola eta CO₂ bihurtzen zutela.

Hartidura prozesu honetan tenperatura kontrolatu beharra daukagu. Tenperatura altua bada, legamiak hil egingo dira, eta, aldearantz, baxua bada, hauek gelditu egingo dute hartidura.

Behin prozesu hau guztia azaldu ondoren, jakin beharra daukagu zelakoak diren prozesu hau egiten duten mikroorganismo finak. Hauek ezagutu beharko ditugu: legamiaren neurria oso txikia da (bi eta 10 mikra artean). Hamabi bat legamia



familia daude eta familia batzuek espezieetan banatzen dira. Hain handia da parte hartzen duten legamiaren kopurua, hartidura alkoholiko baten 60 legamia mota kontatu izan direla. Baina, hartiduran legamiak eta bakteriak ez atseginek ere dezakete parte. Hauek ugaltzen ez daitezten, anhidrido sulfuroso antiszeptiko eta kontserbatzailea erabiltzen dugu.

Kontuan hartu behar da alkohol-gradu bat sortzeko 17 gramoko azukre behar ditugula, gure gorabehera. Ezin dugunean azukre kopuru hori naturalki lortu eguzkiaren eraginagatik, hartidurari erremolatxatik lortuta azukrea bota diezaiokegu. Teknika honi txaptalizazioa deitzen zaio eta Europako herri askotan teknika legala izan arren, Espainiako Estatuan, oro har, dago legalki onartuta.

Baina, nondik dator izen hori? Azukrearen soberakinari irteerak eman nahian, Jean Antoine Chaptal-ek, Napoleon I.aren Nekaritzza ministroa zenak, erabaki zuen ardoa egiteko erremolatxa erabiltzea.

ZURE GALDERA

Zer tenperaturatan hartu behar dira ardo zaharrak?

Jeneralean, ardo zaharrak zahartzeko prozesu horretan lurrin bereziak sortzen ditu. Tenperatura altuetan lurrinak irteten dira. Jerrazago nabaritzen dira. Baina, kontuan izan behar dugu 20 gradutik gora, alkohola ere nabarmendu daitekeela. Bestalde, tenperatura baxuetan astinjentzia nabarmendu egiten da. Horregatik, naholku da ardo mota hauek 16-18 gradutan hartzea. Tenperatura altuagoan edanez gero, alkohol lurrinak indartuko dira eta ardo alkoholaduna irudituko zaigu. Tenperatura baxuagoan edaten badugu, ostera, zahartzeak sortutako lurrinak ez ditugu nabaritu.

Zuek irakurleok ere egin ditzakezue galderak. Zuen kezkei erantzuteko naukazue. Bidali galderok honako helbide hauetako batera: goienkaria@goiena.com edo Barrenkalea, 33 20570 Bergara.


Goiena Telebista

Telebegi

Zapping

Munduan zer gertatzen den jakiteko balio dezake; berari begira une atseginak igaro ditzakegu edo sutan jarri. Batzuetan, barre algarak egiten ditugu eta beste batzuetan, malko bat edo beste. Baina, telebistaren funtzioetariko bat dibertitzea da. Horregatik, gaur egun, gutxienez, aukera daukagu *mando*-aren bitartez nahi dugun programa hautatzeko, "zapping" egiteko, alegia. Horixe egiten dut gehienetan.

Nire arazoa domeketan dator. Futbola gustatzen zait, nire taldea ikusteko telebista pizten dut, eta lur jota geratzen naiz. Samurrena telebista kentzea izango zen, baina egoera onetan zein txarretan taldea babestea gustatzen zait. Domekak gogorrak izaten dira niretzat. Domekaren ostean, astelehena dator. Astelehenean ere futbolzalea izaten jarraitzen dut. Orduan, *Goienasport* aukeratzen dut; batetik, UDA taldearen laburpena ikusteko, eta bestetik, Mondrarena. Eta bi talde hauek ere ez dute nire animoa igotzen. Baina, jakina, ez da telebistaren errua. Nik, berriz, "Kaka zaharra" esan, eta telebista kentzen dut. Nola egin dezaket hori telebistak duen xarmarekin. Nola egin dezaket hori nik neuk ere telebistan lan eginda. Ez dakit, baina futbolearen sarritan esaten duten esaldia erabiliz, "futbola horrelakoa da", nik esan beharko nuke: "Gizakiok horrelakoak gara". Telebistan lan egiteak ez du esan gura telebistan ematen den guztia gogoko izan behar dugunik. Hor daude zaborbiltzaileak eta seguru egiten duten guztia ez zaiela gustatzen. Azken baten, lanbideak dira.



Itxaro Zubillaga

Monika Montero / GOITBko errealizadorea

Monika Montero **mondra-goetarrak errealizadore lanak egiten ditu GOITBn. Eskarmentu handia du, gainera, telebistan; izan ere, urte askoan teknikari izan da. Gaur egun, GOITBko saioen irudia eta edukia lantzea da bere ardura.**

-Zeintzuk dira errealizadore baten egitekoak?

Egingo dugun saioa zelakoa izango den definitzen dut; batetik, programaren edukiak zeintzuk izango diren eta zelan egingo ditugun pentsatzea, eta bestetik, saioaren

irudia, dekoratuak, musika sintoniak... landu eta, ahal denean, pentsatutakoa errealitate bihurtzen saiatzen naiz. Hau guztia lantaldearen laguntzarekin egiten dut, jakina.

-2001ean zer ikusiko dugu?

Orain arte egin ditugun saio askok jarraipena izango dute, baina badago berritasunik. Aurten, *Sarrera doan* izeneko saioa jarri dugu abian. Asteburuko ekintzei begira egindako programa da; besteak beste, zinema, antzerkia, musika eta literatura proposamenak egingo ditugu saio horre-



tan. *11 Magazin* saioak utzitako hutsuñea beteko du *Sarrera doanek*. Aipatzekoa da, baita ere, albiste-giaren ondoren sartu dugun agenda: egunero, bailaran aurki ditzakegun ekintzen berri eman-go dugu.

-GOITBk badu jarraitzailerik?

Ez dugu hori ziurtatzeko inongo neurgailurik, baina baietz uste dut. Kontuan hartu behar da inguruan ez dugula lehiakortasunik, eta hori abantaila da. Hemen gertatzen direnak hemen kontatzen ditugu, gertutasuna eskaintzen dugu.



Asteko programazioa / Urtarrila: 26-1

EGUBAKOITZA 26	ZAPATUA 27	DOMEKA 28	ASTELEHENA 29	MARTITZENA 30	EGUAZTENA 31	EGUENA 1
13:30 Albiste aurrerapena	13:30 Asteko saioen errepikapena Gatza eta berakatza, Xeleberri, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete	13:30 Asteko saioen errepikapena Gatza eta berakatza, Xeleberri, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete	13:30 Albiste aurrerapena	13:30 Albiste aurrerapena	13:30 Albiste aurrerapena	13:30 Albiste aurrerapena
13:40 Gatza eta berakatza			13:40 Gatza eta berakatza	13:40 Gatza eta berakatza	13:40 Gatza eta berakatza	13:40 Gatza eta berakatza
13:50 Sarrera doan (errepikapena)			13:50 Astebete (errepikapena)	13:50 Goienasport (errepikapena)	13:50 Ekilan (errepikapena)	13:50 Aurrez aurre (errepikapena)
19:45 Gatza eta berakatza			19:45 Gatza eta berakatza	19:45 Gatza eta berakatza	19:45 Gatza eta berakatza	19:45 Gatza eta berakatza
20:00/20:30/ Berriak			20:00 Berriak	20:00 Berriak	20:00 Berriak	20:00 Berriak
20:30 Non zer			20:30 Non Zer	20:30 Non Zer	20:30 Non Zer	20:30 Non Zer
21:05 Astebete			20:35 Berriak	20:35 Berriak	20:35 Berriak	20:35 Berriak
			21:05 Mondrasport	21:05 Ekilan	21:05 Aurrez aurre	21:05 Sarrera doan
						21:30 Soinuz Blai

Ekilan

Martitzenean, 21:05ean

Martitzenean Ekilan

Datorren martitzenean, hilak 30, *Ekilan* magazin ekonomikoa izango duzue ikusgai GOITBn. Alberto Gorritiberea irrati esatariak aurkeztu eta gidatzen du *Ekilan* saioa. Ordu erdian, enpresa munduko albiste eta nondik norakoei ematen zaie errepasoa saioan. Erreportaje eta elkarrizketez beteta dator oraingoan ere *Ekilan* saioa. Badakizu, hortaz, martitzenean, ohi bezala, 21:05ean, ekonomia-ekin hitzordua GOITBn.

Sarrera doan

Eguenean, 21:05ean

Zinema protagonista eguenetan

S*sarrera doan* da programaren izena, eta zinema protagonista. Aurrerantzean, egunero, asteburuetako ekitaldi kulturalen berri zehatza emango du GOITBk. Bailarako zinema aretoetan ikusgai izango ditugun filmak... Gasteizko aretoetara heldu berri diren film berrien nondik norakak... Musikak ere izango du bere lekua *Sarrera doan*en: kontzertuak, elkarrizketak...

Kamera aurrean




"Baserri mundua bultzatzeko araudia behar da"

JULEN ABASOLO

Abeltzaina

"MAHAIAREN BUELTA" (2001-1-24)



"Baserriko lana ez da behar bezala baloratzen ez eta ordaintzen ere"

TOMAS LARRAÑAGA

Nekazaria

"MAHAIAREN BUELTA" (2001-1-24)

Atzeskua

MAIDER OSA

Jorge Fernandez/Modeloa

Mister izatearen alde on eta txarrrak.

— Familiarekin eta lagunekin nahi den guztia ezin egona. Horixe da alde txar bakarra, nire ustez. Gainerakoak esperientzia berriak, oso baikorrak eta aberasgarriak dira. Madrilera bizitzera joatea eta Espainia osoa bisitatzea ere ahalbidetzen du, bidaia asko egiten da eta.

— Bizitzan gertatu zaizun gauzarik zoragarriena.

— Bizitzan hainbat garai bizi izan ditut: batetik, IVEF ikasteko onartu nindutenean, ilusio handia izan nuen; baita TAU Baskoniarekin entrenatzen hasi eta lehen partida jokatu nuenean ere; *Mister Espainia* aukeratu nindutenean ere bai; eta baita T5ek zuzeneko programa baten lan egiteko aukera eman didanean ere...

— Zer eramango zenuke uharte galdu batera?

— Motordun itsasontzia, aspertuko banintz ere...

— Zelan neurtzen da edertasuna?

— Edertasuna ez da bakarrik alderdi fisikoa eta estetika hutsa. Pertsonak igortzen didanaren arabera neurtzen dut nik edertasuna: berba egiten, begiratzen, gorputz espresioetan...

— Desio bat.

— Helburu handiak ditut, baina poliki-poliki joan nahi dut, bidean ateratzen zaizkidan aukerak ebatuz.

— Zer sentitzen duzu Mondragoera etortzean? Jendeak asko begiratzen dizu?

— Begiratzen didate, bai, baina gusturen hemen egoten naiz. Lasaitasun handiagoa dut Mondragoen. Kanpora joaten naizenean, jendea gainean egoten da: argazki bat atera nahi dutela, sinadura bat... Baina, Mondragoen lagunekin eta familiarekin egoten naiz; horien falta sumatzen dut gehien.

— Zein da emakume ideala?

— Ez dut estereotipo konkreturik. Berdin zait ile horia edukitzea, beltzarana izatea, altua den, argala, gizona... Zerbait helarazi behar dizu; bihotzak ematen duen "klik" horretan sinesten dut, nahiz eta orain arte ez didan askotan eman.

— Orain arte ezagutu dituzun ospetsuen artean, zeinek harritu zaitu gehien? Zergatik?

— Ez dakit. Asko ezagutzen ditut. Lehengo baten, Bertin Osbornerekin izan nintzen saio bat grabatzen eta barrez lehertu nintzen.

— Asko aldatu da zure bizitza *Mister* izendatu zintuztenetik?

— Bai. Lehen, Gasteizen bizi nintzen, heziketa fisikoko eskolak ematen nituelako, eta Madrilera joan behar izan naiz, oso ezberdina den giroan lan egiteko. Telebista kamerarekin, argazkiekin... kontu handia izan behar dut beti, eta bizitza pribatuari ere eragiten dionez, dena aldatu da, erabat.



"Mondragoen lagunekin eta familiarekin egoten naiz. Horien falta sumatzen dut"

"Bihotzak ematen duen "klik" horretan sinesten dut, nahiz eta orain arte ez didan askotan eman"


► Mondragoetarra / 28 urte / *Mister Espainia*

AIPAGARRI



EDURNE AZUARA
Bergara/Aktorea

ETBko *Hasiberriak* telesail berriko protagonista izateko aukera asko ditu. Euskal Herri osoko mila bat gazteren artean bost aukeratuko dituzte eta Edurne, oraingoaz, lehen hamarren artean geratu da. Telesailak 70 kapitulu izango ditu, bakoitza 25 minutu ingurukoa, eta egunero eskainiko da. Edurne Basauriko Antzerki Eskolan dabil ikasten.



MAIALEN FERNANDEZ DE ARROIABE
Mondragoe/Modeloa

Atzo, eguna, iluntzean Adonostiako Kursaalaren egitekoa zen Miss Euskadi lehiaketan izan genuen. Mondragoetarra laugarren izan zen Miss Gipuzkoan. Oraingoan, Euskal Autonomia Erkidegoko 30 ordezkarekin lehiatu da.

GUNEAK:

HAUR HEZKUNTZA

- Olarte (2-6 urte)
- Santa Teresa (2-6 urte)
- S. Viator Txiki (2-6 urte)
- Umezaintza (0-6 urte)
- Jose Arana-Almen (0-6 urte)
- Sta. Rita (2-6 urte)

LEHEN HEZKUNTZA

- (6-12 urte)
- Almen
- Gazteluondo
- Sta. Teresa
- S. Viator Txiki

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

- (12-16 urte)
- Ferixalekua
- S. Viator
- Almen

BULEGO INFORMATIBOAK

Arrasate
Ferixalekua
15:00-19:00
943 77 20 25

Aretxabaleta
Arizmendi
17:00-19:00
943 79 31 32

Eskoriatza
Jose Arana-Almen
14:00-18:00
943 71 44 86

Arizmendi
ikastola